

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3259

AGINDUA, 2023ko ekainaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak ezarri eta deialdia egiten baita. Garapen jasangarria sustatzeko ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei zuzenduta daude dirulaguntzak.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 11.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du ingurumen eta ekologiaren alorrean Estatuko oinarritzko legeria bere lurraldean garatzeko eta betearazteko.

Eskumen hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egikaritzen du, 18/2020 Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen).

2020rako Euskal Autonomia Erkidegoko IV. Ingurumen Esparru Programa dokumentuak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika islatzen du, eta Eusko Jaurlaritzak ingurumenarekin duen konpromisoa jasotzen du.

Programa horrek gure lurraldeko ingurumenaren egoerari buruzko ikuspegia eskaintzen du, eta jarduteko lehentasunen fokua ezartzen du, besteak beste:

- Gure natura-ondarea babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz.
- Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono-isuri txikiko eta baliabide-erabilera efizienterantz urratsak egitea.
- Herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea.
- Lurraldearen jasangarritasuna areagotzea.
- Politiken koherentzia bermatzea, ingurumen-integrazioa areagotuta.
- Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta erantzukizuna sustatzea.

Hori guztia bideratzeko, sail eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatuko da, ingurumen-aldagaia politika guztietan integratze aldera, eta eragile sozioekonomiko guztiei zabalduko zaie ingurumena hobetzeko erantzukizuna.

2020rako IV. Ingurumen Esparru Programari lotuta, hainbat estrategia eta plan sektorial onetsi ditu Eusko Jaurlaritzak; besteak beste, hauek:

- 2030erako EAEko Biodibertsitate Estrategia. Tresna horren bidez, ekosistemak babesteko eta leheneratzeko jarraibideak zehazten dira; Natura 2000 Sarea sustatzen da –funtsezkoa European eta Euskal Autonomia Erkidegoan biodibertsitatea kontserbatzeko–; naturaren kultura eta natura ezagutzea bultzatzen da; eta lurraldearen zein natura-ondarearen kudeaketa eraginkor eta efizientearen alde egiten da.

- 2020rako Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitate Estrategia. Horren helburu nagusia EAEko geodibertsitatea eta Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan identifikatutako ondare geologikoa aztertzea eta balioestea da, baita bi horien kudeaketan, babesean, kontserbazioan, gizarteratzean eta erabileran esku hartzeko irizpideak eta proposamenak ezartzea ere.
- 2050erako Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia. Horren helburuak berotegi-efektuko gasen isuriak % 80 murriztea eta energia berriztagarrien kontsumoa guztizkoaren % 40 izan dadin lortzea dira, baita klima-aldaketaren aurrean EAEren erresilientzia bermatzea ere.
- 2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia. Eragile guztiak estrategiaren barruan sartzea eta eragile horiek guztiek elkarrekintzan jardutea da asmoa, helburu argi batekin: bizimodu berrietara aldatzea, jasangarritasunaren kultura berri baterantz.
- 2030erako EAEko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia. Produktuen, materialen eta baliabideen balioari ekonomian ahalik eta denbora gehien eustea du xede, eta helburu estrategiko hauek ditu: % 30 handitzea produktibitate materiala zein material zirkularraren erabilera-tasa, eta % 30 gutxitzea hondakinak sortzeko tasa BPGd unitate bakoitzeko.
- 2030erako Euskadiko Lurzorua Babesteko Estrategia. Asmo handiko helburua da, lurzoruen kudeaketa jasangarriaren bidez, ingurune hori mende-erdirako termino garbieran degradatzen saihestea, eta, aldi berean, haren kontserbazioa biodibertsitateerako eta pertsonentzat osasun-baldintzetan bermatzea.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak hauek onetsi ditu azken urtean:

- «Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2024 Plana». Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldirako (2020-2024) Plan Estrategikoen artean dago. Planaren helburuak hauek dira: produktibitate materiala eta materialaren erabilera zirkularraren tasa % 30 handitzea eta hondakinen sorrera-tasa % 10 murriztea BPGd unitate bakoitzeko.
- «Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana 2024». Hau ere Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldirako (2020-2024) Plan Estrategikoen artean dago. Helburu hauek ditu: berotegi-efektuko gasen isuriak % 30 murriztea; energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren % 20 izatea; eta EAEko lurraldearen klima-aldaketaren aurkako erresilientzia bermatzea.
- «Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana: Hondakinak Baliabide Bihurtzen». Dokumentuan aurreikusitako helburuak lortzeko dokumentuko funtsezko hamar jarduketetako bat da isurketa gutxitu eta zirkulartasuna sustatzen duten lehentasunezko inbertsioei laguntzeko inbertsio-plana eta ibilbide-orria martxan jartzea.
- «Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako programa». Programak, besteak beste, lehenesten diren kategorietan erosketa publiko berdearen % 75 lortzea bilatzen du, Programari atxikitako erakunde publikoen kopurua handitzeaz eta erakunde pribatuen atxikimenduan aurrera egiteaz gain.
- Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntza sustatzeko dekretua. Horren helburua da jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzari buruzko berrikuntza- eta trebakuntza-plataforma bat abian jartzea, «Ikastetxe jasangarria» zigilua eguneratzea eta herri-tarrak sentsibilizatzeko kanal digital bat sortzea.

Bestalde, 2019ko uztailan, Eusko Jaurlaritzak klima-larrialdiaren adierazpen instituzionala sinatu zuen, 2050ean berotegi-efektuko gasen isurien neutraltasuna lortzea eta klimarekiko erresilientea den lurralde baterantz aurrera egitea helburu duena.

Era berean, 2019ko irailaren 26an aho batez hartutako erabakiaren bidez, Eusko Legebiltzarrak klima-larrialdiko egoera deklaratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan.

Toki-administrazioa da herritarrengandik hurbilen dagoena, eta horrek garrantzi handia ematen dio zenbait eragileren eta herritarren parte-hartzea bideratzeko orduan. Zeregin eredugarri horretan, udalek herritarren ohiturak alda ditzakete modu eraginkorragoan klima-aldaketari aurre egiteko, eta sentsibilizazio publikoa funtsezko alderdia izango da klima-ekintzari begira; era berean, funtsezkoa izango da herritarrek aldaketetara egokitzearen eta gizarte egokituago eta erresilienteago baterantz joatearen garrantzia ulertzea.

Garapen Jasangarrirako 2030erako Agenda da NBEren Biltzar Nagusiak pertsonen, planetaren eta oparotasunaren alde ezarritako plana, eta bake unibertsala, garapenerako lankidetzeta eta justiziarako sarbidea sendotzea du helburu.

2015ean onetsi zen, eta klima-aldaketari buruzko Parisko Akordioa eta Hiri Agenda Berria hartzen ditu barnean, besteak beste. 2030erako Agendak Garapen Jasangarrirako 17 Helburu (GJH) planteatzen ditu alor ekonomikoan eta sozialean nahiz ingurumenean. Munduko garapen-programak zuzenduko ditu datozen urteetan.

Agindu honek sustatzen duen udal-ekintzaren ekarpenak 11. GJHn (Hiri eta komunitate jasangarriak) du eragina oro har, eta horiek seguruak, barneratzaileak eta erresilienteak izan daitezela du helburu. Gainera, hark sustatzen dituen ekintza-lerroek beste GJH zehatz bati lagunduko diote, gutxienez.

- Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroak 3. GJHari lagunduko dio (Osasuna eta ongizatea).
- Klima-aldaketaren lerroak 13. GJHari lagunduko dio (Klima babesteko ekintza).
- Natura-ondarearen lerroak 6. GJHari (Ur garbia eta saneamendua) eta 15. GJHari (Lehorreko ekosistemen bizitza) lagunduko die.
- Ekonomia zirkularraren lerroak 12. GJHari lagunduko dio (Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak).
- Tokiko Ekoberrikuntzaren lerroak 9. GJHari (Industria, berrikuntza eta azpiegiturak) eta 13. GJHari (Klima babesteko ekintza) lagunduko die.
- Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroak 4. GJHari lagunduko dio (Kalitatezko hezkuntza).
- Asteklima 2023 lerroak 7. GJHari (Energia eskuragarri eta ez-kutsatzailea) eta 13. GJHari (Klima babesteko ekintza) lagunduko die.

Horregatik guztiagatik, toki-erakundeentzako laguntzen Agindu honen helburua da udal-ekintza 2020rako EAEko IV. Ingurumen Esparru Programan ezarritako ingurumen-lehentasunekin eta programa horretatik eratorritako planekin eta estrategiekin bat etortzea, bai eta oraingo testuinguruko garapen jasangarriari buruzko nazioarteko jarraibide nagusiekin ere.

Aipatutako lehentasunen garrantzia aintzat hartuta, ezinbestekoak dira inplikaturako administrazio guztien, herritarren, gizarte-erakundeen, ezagutza sortzen duten erakundeen, unibertsitatearen eta enpresen arteko ekintza koordinatua, elkarriketa eta adostasuna. Testuinguru horretan,

toki-administrazioek funtsezko eginkizuna dute erronka horiei aurre egiten lagunduko duten ekintzak gauzatzeko.

Dirulaguntza hauek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2021., 2022. eta 2023. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude, zeinak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko otsailaren 16ko Agindua-ren bidez onartu baitziren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan eskatzen den bezala, eta manu horretan adierazitako edukiarekin. Dirulaguntzen Plan Estrategiko hori aldatu egin da 2021eko ekainaren 30eko, 2022ko otsailaren 16ko, 2022ko irailaren 7ko eta 2023ko otsailaren 20ko aginduen bidez. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta ondorengo aldaketak webgune honetan kontsulta daitezke: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/sail-plana/2021ko-ekonomiaren-garapen-azpiegitura-sailaren-diru-laguntzen-plan-estrategikoa/>.

Dirulaguntzen deialdi honetan, Ihobe, SA Sozietate Publikoak – Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren baliabide propioak – jardungo du erakunde laguntzaile gisa.

Horiek horrela, irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jarduketa-arloak finkatzen dituenak) eta otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzekoak) ematen didaten eskumena baliatuta eta bat etorrita azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesteko xedatutakoarekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntza eta laguntzei aplikatze-koak zaizkien gainerako xedapenekin, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bidez ezartzen dira dirulaguntza-deialdiaren oinarriak. Dirulaguntza horiek zuzenduta daude garapen jasangarria sustatzeko ekintzak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, mankomunitateei, kontzejuei eta udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko beste edozein tokiko erakunderi, kuadrillei, eskualdeei, tokiko erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei, tokiko merkataritza-sozietateei, tokiko enpresa-erakunde publikoei, tokiko partzuergoei eta fundazio publikoei, lerro hauekin bat etorriz:

- a) Lurzoru kutsatuak eta lurzoruaren babesa. Lurzoruaren babesa sustatzen duten ekintzak, besteak beste lurzoru artifizializatu hutsen inbentarioak egitea eta lurzoruaren kalitatea ikeritzeko, prebenitzeko eta berreskuratzeko lanak sustatzen dituzten ekintzak.
- b) Klima-aldaketa. Arintzera (berotegi-efektuko gasen isuri garbien murrizketa), CO₂-aren xurgapenera eta egokitzapenera (plangintza eta ekintzak) bideratutako ekintzak klima-aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen efektuak murrizteko.
- c) Natura-ondarea. Euskal Autonomia Erkidegoko biodibertsitatea eta dibertsitate geologikoa kontserbatzeko eta horiek leheneratzeko edo hobetzeko ekintzak.
- d) Ekonomia zirkularra. Tokiko zirkulartasuna sustatzeko ekintzak.
- e) Toki-mailako ekoberrikuntza. Transferi daitezkeen eta ingurumen-inpaktuak murrizten dituzten lehentasunezko esparruetako berrikuntza- eta erakustaldi-proiektu pilotuak garatzea.

f) Jasangarritasunerako hezkuntza. Tokiko Agenda 21 edo 2030erako Tokiko Agenda eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea sustatzen duten ekintzak.

g) Asteklima 2023. Herritarrak klima-aldaketaren arloan ekintzara mobilizatzeko jarduerak.

2. artikulua.– Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko eskakizunak.

1.– Hasteko epea:

2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren proiektuek soilik jaso dezakete dirulaguntza.

2.– Dirulaguntza jaso ahal izateko, ekintzek eskakizun hauek bete behar dituzte:

a) Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroan.

Hona hemen dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak:

– Inbentarioak egitea, udalerrian dauden kokaleku artifizializatu hutsei buruzko funtsezko informazioa identifikatu eta biltzeko, kokaleku horiek berriz erabiltzeko planak eta jarduketak-neurriak diseinatzeko erabil daitezten.

– Degradatutako lurzoru artifizializatu hutsak erabilera iraunkorrerako nahiz aldi baterako erabilerarako berronertzeko ekintzak.

– Lurzoru ez-urbanizagarrian baliabide horri eragiten dioten mehatxuetako edozeinek degradatutako lurzoruei buruzko informazioa eta ekintza biltzeko ekintzak.

– Kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lurzoruak eta/edo eraikuntzak eta industria-instalazioak ikertzeko ekintzak, ingurumen-organoak egindako eskakizunen ondoriozkoak barne.

Lurzoruak ikertzeko jarduketak aurreikusitako erabilerarako lurzoruaren kalitatearen adierazpena lortzera bideratu beharko dira, 5 urteko gehieneko epean, salbu eta lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura amaitu aurretik saneamendu-jarduketak exekutatu behar direnean eta/edo egin behar den jarduketa-kronogramak epe horren luzapena justifikatzen duenean.

Industria-eraikin eta -instalazioei buruzko ikerketen kasuan, jarduketa hori onetsi denetik gehienez ere 2 urteko epean berreskuratu beharko dira.

Eskakizun hori betetzen dela ofizios egiaztatuko du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak.

– Lurzoru kutsatuak berreskuratzeko ekintzak, bai industria-jarduerak egin diren lurzoruetan, bai garai batean hondakindegia klandestino gisa erabilitako lurzoruetan, baldin eta berreskuratzeari ekin baino lehen aurretiazko ikerketa-fasea amaitu bada. Garai batean hondakindegia klandestino gisa erabilitako lurzoruak berreskuratzeko, inguru horretako natura-ondarea kontuan hartzeko irizpideak aplikatu beharko dira, berau areagotzeko xedez, eta landare-estalkia hobetzeko materia organikoa gehitu behar izanez gero, material bioegonkortua edo konposta erabili beharko da, bata zein bestea erabili kokalekuan aurreikusitako erabilerarako egokia dela egiaztatuta.

Diruz lagundutako jarduketa lurzoruak berreskuratzeko proiektu bat idaztea bada, ingurumen-organoak proiektua onetsi ondoren, proiektua exekutatzeko hasi beharko da, onetsitako irismenarekin, gehienez ere 2 urteko epean.

- Kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten industriako eraikinak eta instalazioak ingurumenaren ikuspegitik berreskuratzeko ekintzak, kanpoan utzita kutsa dezakeen industria-jardueraren instalazioa eraistea eta harrien edo industria-jarduerari lotuta ez dagoen beste edozer erai-kuntza- eta eraipen-hondakin kudeatzea.
- Ingurumen-jarraipeneko ekintzak, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak sustatutako proiektuen barnean daudenak; gehienez, 5 kontrol- eta jarraipen-kanpaina hondakindegia berreskuratu ondoren edo lurzoruari kalitate-adierazpena eman ondoren.
- Ingurumen-organoak lurzoruaren kalitatearen adierazpena lortzeko prozeduraren barruan eskatutako beste ekintza batzuk.
- Lurzoruaren kalitatearen adierazpena, lurzoruaren gaitasunaren adierazpena edo lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruaren inbentarioa aldatzeko prozeduren salbuespen bat izapidetzeko txostenak idaztea.

Aipatutako ekintzek eskakizun hauek bete beharko dituzte, dirulaguntza jasotzeko:

1.– Jarduketak toki-titulartasuneko lursailetan egitea, titulartasuna 2005eko maiatzaren 16a baino lehen formalizatu bada eta diruz lagundutako jarduketa gauzatzeko betebeharra duen beste hirugarrenik ez badago, lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko legediaren arabera. Eskakizun hau ez da aplikatuko, baldin eta egoera hauetako edozein gertatzen dela egiaztatzen denean:

Jabetza pribatuko lurzoria izan arren eta betebeharreko bat egon arren betebeharrekoak ezin badu jarduketa gauzatu konkurtso-egoeran dagoelako eta erakunde onuradunak jarduketa subsidiarioren bat gauzatu behar duelako pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteari edo ingurumen-arriskuari lotutako arrazoiengatik. Jarduketa horien kostuak gero jasanaraziko zaizkio betebeharrekoari, erakunde eskatzailea ez den beste bat bada.

Lurzoria ikertzeko edo berreskuratzeko neurriak hartzera behartutakoa (hau da, toki-erakundea, birpartzelazio-komunitatea –Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147.3 artikulua aplikatu behar denean– edo beste pertsona fisiko nahiz juridikoa) salbuetsita dagoenean ikerketa edo berreskuratze-jarduketak egiteko lurzoruaren kutsadura saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko legeria aplikatuz.

Kutsaduraren eragileari erantzukizuna eskatu ezin zaionean –hura desagertu delako edo kaudimengabezia-egoeran dagoelako eta bere betebeharrei ekonomikoki ezin dielako aurre egin– eta kokalekuan egin beharreko jarduketaren sustatzailea toki-erakundea denean, baldin eta jarduketa udalerrarentzat edo ingurua berreskuratzeko interesekoa bada.

Toki-erakundeak kokalekua erabilera publikoetarako (ekipamenduak, berdegune berriak, azpiegiturak) edo ingurumena berreskuratzeko erabili nahi duenean eta egiaztatutako dezakeenean erosketa-prezioan kontuan hartu dituela kutsadura potentzialak eta horri lotutako kostuak, saltzaileak irabazirik ez lortzea bermatuz.

Dirulaguntzaren xede diren lursailak jabetza pribatuak toki-erakundeari epe luzera aldi baterako lagatakoak direnean ekipamendu publikoak, berdegune berriak, azpiegiturak edo antzekoak instalatzeko.

Ekintzen tipologia horren izaera dela eta, ezin izango dira luraren titulartasunaren gaineko eskakizunak eskatu kokaleku artifizializatu hutsen inbentarioen kasuan, ez eta

Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena, Lurzoruaren Gaitasunaren Adierazpena edo lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioa aldatzeko prozeduren salbuespen bat izapidetzeko txostenen kasuan ere.

Proiektuak titulartasun partekatuko lursailetan egingo badira, laguntzaren zenbatekoa erakunde eskatzailearen titulartasun-ehunekoaren gainean kalkulatu da, kokaleku artifizializatu hutsen inbentarioen eta ingurumenaren jarraipena egiteko ekintzen kasuan izan ezik (kasu horietan diruz lagun daitekeen gastu osoarena izango da).

2.– Industriako eraikin eta instalazioetan, toki-erakunde baten jarduketa subsidiarioren bat gauzatu beharko da, bai ingurumen-arriskuagatik, bai pertsonen osasunagatik edo segurtasunagatik, are titulartasuna pribatua bada ere. Jarduketa horien kostuak gero jasanaraziko zaizkio betebeharpekoari, erakunde eskatzailea ez den beste bat bada.

3.– Dirulaguntza jaso ahal izango dute industria edo bizitegi-erabilerarako diren lurzoruak ikertzeko eta berreskuratzeko ekintzek, baina soilik erabilera exekutatu ondoren titulartasun publikoa mantentzen denean. Titulartasun hori mantendu ezean, egiaztatu beharko da ez dela irabazirik izan titulartasuna aldatzeko prozesuan (dirulaguntzak ez duela aldatu salmenta-prezio tasatua).

4.– Aurreko hiru deialdietan diruz lagundutako jarduketak ez dira diruz lagunduko, baldin eta justifikaziorik gabeko eta erakunde onuradunari soilik egotz dakizkiokeen arrazoiengatik uko egin badiote.

b) Klima-aldaketaren Ierroan:

Honako helburu hauek sustatzen dituzten ekintzak izango dira diruz laguntzekoak:

1.– Klima-aldaketa: Mugikortasun jasangarria.

– 5.000-50.000 biztanle bitarteko udalerrietan Isuri Gutxiko Eremuak diseinatzea eta ezartzea. Isuri Gutxiko Eremutzat joko dira administrazio publiko batek bere eskumenak baliatzean mugatutakoak. Eremu horiek beren lurraldean kokatuko dira, etengabeak izan beharko dute, eta bertan ibilgailuen sarbide-, zirkulazio- eta aparkaleku-murrizketak aplikatuko dira, airearen kalitatea hobetzeko eta berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko.

– Bidegorriak edo bidegorri-lotuneak, mugikortasun-eragileak (besteak beste, bizitoki-eremuak, ikastetxeak, industrialdeak eta kirol-instalazioak) konektatzea ahalbidetuta, baldin eta natura-ondarea eta lurzorua kontserbatzearekin bat badatoz eta diseinutik bertatik klima-aldaketara egokitzeko irizpideak txertatzen badituzte; adibidez, lurzoru iragazkorren erabilera, zuhaiztiak, etab.

– Disuasio-aparkalekuak eta haiek hobetzeko jarduketak ibilgailu pribatu motordunaren erabilera murrizteko, baldin eta natura-ondarea kontserbatzearekin bat badatoz eta diseinutik bertatik klima-aldaketara egokitzeko irizpideak kontuan hartzen badituzte; adibidez, lurzoru iragazkorren erabilera, zuhaiztiak, etab.

2.– Klima-aldaketa: Karbono-xurgapena.

– Gutxienez hektarea bateko azalera basotzea eta basoberritzea, karbonoa aireko eta lurpeko biomasan eta lurzorian xurgatzeko, bertako espezieetako baso-eremu zuhaiztuak sortuz eta zaintzeko xedez (aprobetxamendurik gabe).

Basotzetzat joko da basorik ez zuten lurra landatuz, ereinez edo berroneratze naturalaren sustapen antropikoaren bidez eraldatzea.

Basoberritzetzat joko da basoa soildutako lurretan lantzea, ereitea edo berroneratze naturalaren sustapen antropikoa egitea.

Proiektuak 30 urteko iraupena izan beharko du gutxienez; heldutakoan zuhaitzen adaburuen estalkia % 20koa izango da, eta garaiera potentziala 3 metrokoa. Basoa kudeatzeko plana ere eduki beharko du.

Klima-aldaketaren aurreko udal-kalteberatasunaren analisiaren emaitzak kontuan hartzen dituzten jarduketak lehenetsiko dira, bai eta hondatutako lurzoruetan egin eta horiek berreskuratzen laguntzen dutenak zein higadura-arriskua gutxitzen dutenak ere.

Basotzeak zein basoberritzeak bertako baldintza ekologikoen arabera zuhaitz espezieekin egin beharko dira, egokitzapen-irizpideak barne hartuta, esaterako, klima-aldaketarekiko kalteberatasun txikia duten espezieak hautatzea, bero-uharteak gutxitzen laguntzea, uholdeak erregulatzea, etab.

Basotzean zein basoberritzean, diruz laguntzeko modukoa izango da lursaila landaketaren aurretik prestatzea, baldin eta lurzoria eta biodibertsitatea babesteko irizpideei jarraikiz egiten bada.

Hala basotzeko nola basoberritzeko jardueretan, proiektuaren sustatzaileak kudeaketa-plan bat landu beharko du, baso-masak karbonoa xurgatzea bermatzeko moduko baldintzetan iraungo duela ziurtatzeko, gutxienez proiektuaren iraunaldi osoan zehar (30 urte). Plan horrek honako hauek jasoko ditu gutxienez: baso-kudeaketaren helburuak eta azalpena, karbono-xurgapenak ziurtatzeko behar diren mantentze-lanak, eta baso-jarduketaren kronograma bat.

Kudeaketa-plana egitea diruz laguntzekoa izango da.

Ez dira diruz laguntzekoak honako jarduketa hauek:

- Edozein lan zibil exekutatzeko eragindako inpaktua edo bestelakoak konpentsatzeko helburua duten jarduketak.
- Azpiegiturak eraikitzea behar duten jarduketak (baso-pistak eraikitzea, adibidez).
- Biodibertsitatea eta lurzoria zaintzearekin bateragarriak ez diren edo horren kontra doazen jarduketak. Hori horrela, ez dira diruz laguntzekoak izango, besteak beste, Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezie edo habitatei eragiten dieten jarduketak.
- Makineria astunaren erabilera intentsiboa behar duten jarduketak.
- Exekutazearen ondorioz beste toki batean isuriak sortzen dituzten jarduketak, proiektuaren eremuan aurretik garatutako jarduerak lekualdatzeagatik.

3.– Klima-aldaketa: Egokitzea.

- Udaletako edo eskualdeetako klima- eta energia-planak egitea.

Planaren ekintzak epe labur eta ertainera definitzen badira ere, epe luzerako (20 urte, gutxienez) klima-egoera aurreikusi beharko da plana egiteko. Egokitzapena udalerrirako eragindako klima-arriskuari buruzko analisi espezifikoan oinarritu beharko da edo, halakorik

ezean, honetan: «EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa», lhobek egina. Eta parte-hartzearen bidez egingo dira.

Planak lhobek argitaratutako «Klima eta Energiako Tokiko Planak egiteko Gida» betez garatu beharko dira.

– Klima-aldaketa eta/edo naturan oinarritutako konponbideak hiriguneko plangintzan eta azpiegitura berdetzat hartutako eremuetan txertatzea dauden tresna eguneratuenak erabiliz (besteak beste, Euskadiko klima-agertokiak; hiri-klimako mapak, hiri-materialek beroa xurgatzeko eta lagatzeko duten ahalmena aztertzeke; eta hiri-aireztapeneko mapak). Txertatze horren adibide izan daitezke hiri-azpiegitura berdea eta urdina hobetzea plangintza-mailan eta udal-mailako esku-hartzeen eremuak lehenesteko tresnak edo metodologiak.

– Hirigunean eta hiri-periferian klima-aldaketari lotutako arriskuen prebentziora bideratutako naturan oinarritutako konponbideak sustatzeko eta erabiltzeko esku-hartzeak (adibidez, bero-boladen, lehorteen, uholdeen eta itsas mailaren igoeraren ondoriozko arriskueta egokitzea) eta biodibertsitatea eta hari lotutako ekosistema-zerbitzuak bultzatzea eta balioan jartzea.

Naturan oinarritutako konponbideak identifikatzeko, proiektuek «Irtenbide naturalak Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan klima-aldaketara egokitzeko. Horiek identifikatzeko eta mapatzeko gida metodologikoa» (www.euskadi.eus helbidean eskuragarri) argitalpean proposatutako metodologia aplikatu beharko dute.

Klima-aldaketara egokitzeko proiektuen kasuan, kontuan hartu beharko da lhobek argitaratutako «Jardunbide egokiak Euskadiri aplika dakizkiokeen klima-aldaketara moldatzeko tokiko neurrietan» dokumentua.

– Kostaldeko ingurunearen arriskuaren eta egokitzapenaren azterketa zehatzak egokitzapen-planak edo hiri-antolamenduko plan orokorrak egiteko, eta itsas mailaren igoeraren ondorioz itsasertzean uholde-arriskua murrizteko jarduketak.

Honako ekintza hauek, berriz, ezin izango dira diruz lagundu:

– Klima-aldaketan eta airearen kalitatean eragin txikia duten ekintzak; besteak beste, bizikletentzako aparkalekuak jartzea, kaleak oinezkoentzako bihurtzea, edo bidegorriak eraikitzea, mugikortasun-eragileen (ekoizleen eta erakarleen; tartean, bizilekuak, ikastetxeak, industrialdeak, kiroldegia, etab.) arteko loturarik ez dakartenak.

– Azterketak edo diagnostikoak (mugikortasun-planak, adibidez), agindu honetan berariaz aipatutakoak izan ezik.

– Bereziki, ez dute dirulaguntzarik jasoko azpiegitura eraikitzea dakarten jarduketak, baldin eta ez badira kontuan hartu klima-aldaketara egokitzeko irizpideak, irizpide ekologikoak eta hiriko ingurumena hobetzeko irizpideak, ez badira paisaian txertatzeko eta natura-ingurunearen gaineko inpaktuak txikiagotzeko ahaleginak egin, edo ez badira natura-ingurunearen kontserbazioarekin bateragarriak.

Azpiegiturek materialen beharra izanez gero, eraikuntza-materialen gutxienez % 40 birziklatuak izango dira; nagusiki, eraikuntza- eta eraipen-hondakinen balorizaziotik datozen agregakin birziklatuak eta altzairutegiko zeparen balorizaziotik datozen agregakin siderurgikoak, arau teknikoek ehuneko horiek lortzea eragozten duten erabileretan izan ezik (adibidez, erroadura-geruzetako fresatuak, eraikuntza- eta eraipen-hondakinetako

materialak egitura-hormigoian). Obra-unitateko eta eraikuntza osoko kantitateak kalkulatzeko, Eraikuntzako material birziklatuak erabiltzeko gidaren kalkulatzeko tresna erabili beharko da. Tresna hori eskuragarri dago hemen: <https://www.ihobe.eus/argitalpenak/eraikuntzan-material-birziklatuak-erabiltzeko-gidaliburua>

c) Natura-ondarearen lerroan.

Diruz laguntzeko modukoak izango dira biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzea, leheneratzea eta hobetzea sustatzen duten proiektuak, honako ekintza hauen bidez:

1.– Batasunaren edo eskualdearen interesekoak diren habitat naturalak kontserbatzeko egiten diren leheneratze-, hobetze- edo kudeatze-ekintzak, flora exotiko inbaditzailearen kontrola barne, habitat naturala berreskuratzea sustatzeko jarduketekin osatzen bada.

Urria, berezia edo kontserbazio-egoera eskasekoagoa izateagatik kontserbazio-interes handia duten habitatetan egitekoak diren ekintzak lehenetsiko dira; esaterako, ibarbasoetan, baso autoktonoetan, paduretan, zohikaztegietan, hezeguneetan, etab.

2.– Batasunaren edo eskualdearen mailan mehatxatutako flora eta fauna basatiko espezieak babesteko eta kontserbatzeko proiektuak, hauek jasotakoak: Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauak (habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzkoak); Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentarauak (basahegaziak kontserbatzeari buruzkoak); Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoak; edo Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoak. Azken horretan, «galzorian» edo «kaltebera» kategorietako espezieak soilik hartuko dira kontuan.

3.– Lurraldearen konektagarritasun ekologikoan eta azpiegitura berdearen sustapenean zuzenean laguntzen duten jarduketak, hala nola tokiko biodibertsitatearen intereseko guneen arteko konexioa sustatzea edo hesiak sortzea.

4.– Tokian-tokian aukera-espazioak indartzea, eta, biodibertsitatea sustatzeko, ingurumen-narriadura duten eremuak berreskuratzea aurreikusita.

5.– Toki-erakundearen lurralde-eremuan dauden Interes Geologikoko Lekuak babesteko, kontserbatzeko eta monitorizatzeko edo balioa emateko jarduketak, irakaskuntza-/hezikuntza edo turismo-/aisia-erabilerarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan, Geoparkeko inbentarioan eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren inbentarioan, Lurralde-plan partzialetan, Hiri Antolamenduko Plan Orokorretan edo Kultura-intereseko ondasunetan (kultura-intereseko interes geologikoko lekuak, esaterako, aztarnategi paleontologiko zenbait) identifikatuta daudenei lehentasuna emanez.

6.– Ibaiertzak eta ibilguak garbitzeko jarduketak; betiere, jarduketa horiek toki-erakunde eskatzailearen eta Ura-Uraren Euskal Agentziaren artean sinatutako lankidetzeta-protokoloen esparruan egiten badira. Horrelako protokoloek edo dagokion jarduketa-planak biodibertsitatea kontserbatzeko eta babesteko nahitaez bete beharreko eskakizun batzuk bilduko dituzte.

1) eta 5) arteko ekintzen kasuan, lursailen erosketa diruz lagundu ahal izango da dirulaguntzari dagozkion jarduketetarako beharrezkoa denean, betiere aurreikusitako guztizko aurrekontuaren % 40 gainditzen ez bada. Argi eta garbi arrazoitu beharko da lursail horiek erostea premiazkoa dela dirulaguntza eskatzen den ekintzak gauzatu ahal izateko.

Halaber, diruz laguntzekoak izango dira jarduketarekin zuzenean lotutako komunikazio eta sentsibilizazio-ekintza osagarriak, baldin eta herritarren artean dena delako arazoari buruz duten kontzientziak eta ezagutza handitzeko helburua badute.

Ezin izango dira diruz lagundu:

- Ezagutzak eskuratzeko azterketak idaztera zuzendutako eskaerak, ez eta sentsibilizazio-ekintzak argitaratzera zuzendutakoak ere.
- Edozein obra edo proiekturen administrazio-baimenean ezarritako zuzenketa edo konpentsazio-neurrien ondorioz exekutaturako jarduketak.

d) Ekonomia zirkularraren lerroan.

Honako helburu hauek sustatzen dituzten ekintzak izango dira diruz laguntzekoak:

- 1.– Elikagaien xahubidea prebenitzea sustatu eta ezartzeko mekanismoak, baldin elikagaien xahubidearen kontabilizazioa nazioartean onartutako metodologiaren ondorioa bada.
- 2.– Sortzaile handien (saltokiak, ikastetxeak, bestelako gizarte-ekipamenduak) jardueraren ondorioz materia organikoa gaika biltzeko sistemak, tratamendu biologikorako eta/edo ehun-kiak gaika biltzeko eta/edo etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak.
- 3.– Hondakinak sortzeagatik ordaintzeko sistemak, gaika biltzen ez diren hondakinak ez sortzera eta gaikako bilketa sustatzera bideratuak.
- 4.– Gaika biltzen ez diren hondakinak ez ekoizteko lagungarriak diren sistemak ezartzea, errefusaren eta/edo biohondakinen bilketan erabiltzailea identifikatuta.
- 5.– Instalazio berrien bideragarritasunari buruzko azterketak egitea eta konpostatze komunitarioko instalazioak arau-eskakizun berrietara egokitzea, hala nola hauek ezarriz: erabiltzailea identifikatzeko sistemak, karraskariei sartzeko mugatzeko neurriak, ur-hornidura, erabiltzaileei zuzendutako sentsibilizazio- edo komunikazio-kanpainak, horiek edo instalazioak behar bezala erabiltzeko, konpostatze komunitarioko instalazioen segimendua egiteko kostuak; eta/edo bestelako egokitzapenak.
- 6.– Berrerabiltzera, konpontzera edo leheneratzera eta autokonponketara (ehunak, altzariak, zapatak, jostailuak, aparatu elektronikoak) bideratutako ekimenak, sistemak edo instalazioak; esate baterako, bigarren eskuko ondasunak partekatzeko edo erosteko eta saltzeko web-guneak edo plataformak, autokonponketa-instalazio gidatuak, tokiko konpontzaileei buruzko informazioa ematen duten komunikazio-jarduketak edo plataformak.
- 7.– Ostalaritzako eta merkataritzako sektoreetan eta horien bezeroen artean eta/edo eraikinetan eta/edo jarduera publikoetan (jaiak, kontzertuak, eraikin publikoak, ekitaldiak) ontzien kontsumoa murrizteko edo ontzien hondakinak ez sortzeko neurriak.
- 8.– Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoko planak, autokonpostatze komunitarioari buruz irizpena emateko, udalerriko biohondakinen kudeaketaren irtenbide global gisa.
- 9.– Toki-titulartasuneko konpostatze komunitarioko instalazio eta jardueretatik datorren konpostaren kontrol analitikoak. Lortutako konpostari buruzko analisiak eta kontrolak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 5eko 2019/1009 (EB) Erregelamenduan aipatzen diren arau harmonizatuen arabera egingo dira (erregelamendu horrek EBn ongarriak merkaturatzeari buruzko xedapenak ezartzen ditu, 1069/2009 (EE) eta 1107/2009 (EE) Erregelamenduak aldatzen ditu, eta 2003/2003 (EE) Erregelamendua indargabetzen du), edo

Ongarriei buruzko ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretuaren VI. eranskinaren metodo analitikoaren arabera.

10.– Ekonomia zirkularreko etorkizuneko jarduketak diseinatzeko azterketak egitea.

11.– Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko Ekonomia zirkularrerako apirilaren 7ko 7/2022 Legearen Hamalagarren Xedapen Gehigarria betez, amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen errolda egitea, amiantoa kentzea planifikatzen duen egutegia barne. Errolda eta egutegia publikoak izango dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eskumena duten osasun-, ingurumen eta lan-arloko agintari eskudunei bidaliko zaizkie. Agintari horiek ikuskatu beharko dituzte, hurrenez hurren egiaztatzeko erretiratu eta kudeatzaile baimendu batera bidali direla. Erretiratze horrek lehentasuna emango die instalazioei eta kokalekuei arriskugarritasun-maila eta biztanleria kalteberenaren esposizioa kontuan hartuta. Nolanahi ere, arrisku handieneko instalazio edo kokaleku publikoak 2028 baino lehen kudeatu beharko dira.

12.– Herritarrei egiturazko zuntz-zementuaren kudeaketa zuzena (loreontziak, teilapeak, hodiak...) ahalbidetzen dieten udal-sistemak edo -instalazioak abian jartzea, kontrolik gabe botatzea edo gaizki kudeatzea saihestearren.

13.– Toki-erakundearen eskumeneko egiturazko amiantoa kudeatzeko kostuak, Amianto Arriskuagatiko Enpresen Erregistroan (RERA) izena emandako enpresen bidez eta hurbiltasun-irizpideak kontuan hartuta.

14.– Aurretiko azterketak, tresnak diseinatzea eta/edo sortzaile handietan eta/edo industrialdeetan hiri-hondakinen parekagarriak (gai organikoa, bilgarriak, papera eta kartoia, beira, tamaina handikoak, ehunkiak) biltzeko sistemak abian jartzea.

15.– Plastikoak itsasoan edo ibai-ibilguetan eta haien eragin-eremuan jasotzea, berrerabiltzea edo birziklatzea bermatuz. Jarduketa osagarri gisa, kasu horretan, plastiko horiek herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-jardueretan erabiltzea balioetsiko da.

16.– Udal-eraikinak gaika eraisteko jarduketak, beira, igeltsua, material isolatzaileak eta fresatuak gaika bereiziz, hala dagokionean. Igeltsuzko hondakinen kasuan, alderantzizko logistika bat ezarriko da, ahal den neurrian, obratik hornitzailearen instalazioetaraino, bereizketa ez ezik korrante horren benetako balorizazioa ere bermatzeko.

Eraispen-lanek gutxienez materialaren % 80 balorizatu dutela egiaztatu beharko dute, EEH-Aurrezten bidez eta dagozkion agirien bidez.

17.– Eraikuntza jasangarrirako udal-ordenantzak eta/edo saltoki eta industrietako etxeko hondakinen parekagarriak gaika biltzeko udal-ordenantzak, gastu horiei saltokiei eta industriei jasanaraziz. Diruz lagundu ahal izango dira ordenantzak idazteari lotutako aholkularitza-lanak, baldin eta ordenantza horiek diruz lagundutako jarduketaren esparruan onesten eta argitaratzen badira.

Jarduketa horiez gain, komunikazio eta sentsibilizazio-kanpaina bat egin beharko da, 8., 11., 12., 13. eta 17. jarduketetan salbu. Kasu horretan, komunikazio- eta sentsibilizazio-jarduketak ez dira nahitaezkoak izango; hala ere, egiten badira, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, eta dirulaguntza jaso ahal izango dute.

e) Tokiko ekoberrikuntza-lerroan.

Diruz lagundu ahal izango dira proiektu berritzaileak eta erakustekoak, eta lehentasuna emango zaie exekuziokoak direnei (halakoen bideragarritasuna bermatzeko ezinbestekoak diren aldez aurreko faseak barne, proposamen teknikoan behar bezala justifikatuak).

Berritzailetzat joko dira Euskal Autonomia Erkidegoan lehen aldiz martxan jartzen diren jarduketak, exekutatu ahal izateko egokitu behar direnak, aplikatzen diren testuinguruaren eta errealitatearen arabera edo bestelako proiektuak osatzen ote dituzten kontuan hartuz. Adibidez: aurreko berrikuntza-proiektu batzuen irismena edo garapena zabaltzen duten proiektuak, betiere tokiko garapen jasangarriaren ikuspegi integraletik.

Proiektu pilotuaren erakuste-izaera lotuta egongo da transferigarritasunarekin eta erreplikazio-gaitasunarekin; izan ere, esku-hartzearen aurreko emaitzen adierazleetatik abiatuta, aukera emango du ingurumen-alderdi garrantzitsuetan efektu positiboa duten jarduketan bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa konparatzeko eta agerian uzteko, emaitza positiboak lortuz gero administratibotik bertatik ezar daitezzen sustatzeko.

Eremu hauetara zuzendutako proiektuak izango dira:

1.– Euskadiko Lurzorua Babesteko 2030erako Estrategiaren –gaur egun izapidetze-fasean– helburuetarantz aurrera egiteko aukera emango duten proiektuak, hala nola lurzoru osasungarriak, lurzoruaren kudeaketa jasangarria eta lurzoruaren okupazioaren murrizketa. Besteak beste, lerro honen barruan kontuan hartuko dira «lurzoruaren okupazio-hierarkia» (Lurzorua Babesteko Europako Estrategia 2030 [SWD(2021)] 323 amaiera) ezartzen lagunduko duten proiektuak, plangintza-tresnen bidez (inbentario-metodologiak, hirigintza-tresnetan irizpideak txertatzea, lurzoru hutsak etengabe nahiz aldi baterako berrabilitzeko tresnak, lurzoruaren okupazioagatiko konpentsazio-moduak, etab.).

2.– Balio handiko lurzoruak babesteko (nekazaritzaren edo naturaren ikuspegitik) edo zenbait fenomenok (kutsadurak edo higadurak, esate baterako) kaltetu ditzaketen beste baliabide batzuk babesteko tresnak garatzera eta lurzoru ez-urbanizagarrien gaineko ekin tzara bideratutako proiektuak.

3.– Tokiko aukera-guneak sustatzeko jarduketak, lurzoruaren babesa bultzatzen duten proiektu eraldatzaileak garatzeko, eta, gainera, herritarrentzat onurak dakartzaten eta eremu degradatuak berreskuratzen dituzten, hiriguneetan eta hiri-periferietan azpiegitura berdea eta urdina sustatzen duten, klima-ekintza bultzatzen duten, biodibertsitatearekin bateragarriak diren edo zeharkako ikuspegi batekin hobetzera bideratuta dauden edozein ingurumen-gai kontuan hartzen dutenak.

4.– Induskatutako lurren mugimenduak minimizatzeko azterketak, indusketa murriztuz edo in situ induskatutako materialak balorizatu. Kontuan hartuko dira, besteak beste, eraikuntza-proiektuetan indusketaren alternatibak sistematikoki identifikatzea; hiri-arauak idaztea edo hondakinei buruzko ordenantzak aldatzea, indusketari buruzko irizpideak eta alternatibak txertatuz; induskatutako lurren mugimenduak minimizatzeko azterketa logistikoak, hurbiltasunaren irizpidea aplikatuz, etab.

5.– Induskatutako lurra prebenitzeko edo berrerabilitzeko neurriak ezartzea (in situ tratamendu-teknologiak, instalazioetan inbertitzea edo lurra tarteko biltegitratzerako egokitzea berrerabilitzeko, etab.)

6.– Betelanak baimentzeko eta kudeatzeko ekintzak, jasangarritasun-irizpideak aplikatzen direla bermatzeko eta erabilerak ezartzea sustatzeko (adibidez, inbentario-lanak, langile kualifikatuek betelanak kontrolatzea, etab.)

7.– Itsas mailaren igoera dela-eta itsasertzean uholde-arriskua murrizteko jarduketa berritzaileak.

8.– Hirigunean eta hiri-periferian klima-aldaketari lotutako arriskuen prebentziora bideratutako naturan oinarritutako konponbideak sustatzeko eta erabiltzeko esku-hartzeak (bero-boladen, lehorteen, uholdeen eta itsas mailaren igoeraren ondoriozko arriskueta egokitzea) eta biodibertsitatea eta hari lotutako ekosistema-zerbitzuak bultzatzea eta nabarmentzea.

9.– Berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak arintzen lagunduko duten ekonomia zirkularreko jarduketa berritzaileak, bai zuzenak bai zeharkakoak (3. irismena). Lehenik eta behin, etorkizuneko zehaztapen berriei eman beharreko erantzun aurreratuak. Bigarrenik, tokiko eskumeneko ekonomia zirkularreko jarduketa espezifikoak, berotegi-efektuko gasen (BEG) isurietan zuzeneko hobekuntzak ekar ditzaketanak.

10.– Lurraldeak karbonoa xurgatzeko duen ahalmena (lurzorua eta urdina) handitzen duten jarduketak, karbono-hustuleku berriak sortuz edo hura xurgatzen lagunduko duten naturan oinarritutako kudeaketa-teknikak eta konponbideak aplikatuz. Karbono berdearen proiektuen kasuan, biomasa hileko eta/edo lurzoruko hustulekuen bidezko xurgapenak sustatuko dira lehenespenez.

Klima-aldaketara egokitzeko proiektuen kasuan, kontuan hartu beharko dira «EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa» (https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/municipios_cc/eu_def/adjuntos/udalerrien_kalteberatasuna.pdf) azterketaren ondoriozko inpaktu-kateen lehenespena eta azterketaren ondoriozko udal-fitxak edo udalerrien lehenespen-diagnostiko propioak. Klima-aldagaien bilakaerari buruzko datuak (tenperatura, prezipitazioa, konbinatuak) eskatzen dituzten proiektuek kontuan hartu beharko dituzte Euskadirako klima-aldaketaren agertokietan eskuragarri dauden datuak (<http://escenariosklima.ihobe.eus>). Bi azterketek kartografia sinplifikatua dute Geoeuskadiren arakatzailan (<https://www.geo.euskadi.eus>)

Proiektuak hirigune publikoaren plangintzan, garapenean edo kudeaketan jardutea eskatzen badu, erakunde onuradunek osasunaren gaineko efektuaren analisi bat egin eta aurkeztu beharko dute proiektuaren diseinu-fasean, Tokiko hirigintza-ekimenek osasunean duten efektua aztertzeko tresnaren aplikazioan oinarrituta. Tresna Udalsarea 21eko 17. koadernoan («Osasuna eta hiri-garapen jasagarria») jasota dago.

Irtenbide naturalei buruzko frogapen-proiektuen kasuan, proiektuek «Irtenbide naturalak Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan klima-aldaketara egokitzeko. Horiek identifikatzeko eta mapatzeko gida metodologikoa» (www.euskadi.eus helbidean eskuragarri) argitalpenean proposatutako metodologia aplikatu beharko dute.

Azpiegituren proiektuen kasuan, material birziklatuaren % 40 gutxienez sartu beharko da, batez ere eraikuntza eta eraipen-hondakinen balorizaziotik datozen agregakin birziklatuak eta altzarutegiko zeparen balorizaziotik datozen agregakin siderurgikoak. Obra-unitateko eta eraikuntza osoko kantitateak kalkulatzeko, Eraikuntzako material birziklatuak erabiltzeko gidaren kalkulatzeko tresna erabili beharko da. Tresna hori eskuragarri dago hemen: <https://www.ihobe.eus/argitalpenak/eraikuntzan-material-birziklatuak-erabiltzeko-gidaliburua>

f) Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan.

Diruz lagundu ahalko dira Tokiko Agenda 21en edo Tokiko 2030 Agendaren eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak, 2023ko uztailaren 1etik 2024ko uztailaren 15era bitartean egiten badira. Ekintza horien artean, gutxienez honako hau egongo da: ikasturte bakoitzean, eskola arteko foro bat eta udal-foro bat antolatzea. Foro horietan,

besteak beste, aurreko foroetan hartutako konpromisoen jarraipen-txosten bat aurkeztu beharko da.

Gainera, honako jarduketaren bat ere jaso beharko dute:

- a) Azterketako gaiari buruzko txostenak.
- b) Jardunbide egokien bilduma.
- c) Udal-baliabideen katalogoak egitea.
- d) Diagnostikoa egiteko irteerak edo ibilbideak.
- e) Familientzat eta ikasleentzat jardunaldi teknikoak antolatzea.
- f) Esperientziak web bidez edo beste bide batzuetatik komunikatzea eta zabaltzea.
- g) Erakusketa ibiltariak egitea.
- h) Eskoletako topaketak egun seinalatuetan.

g) Asteklima 2023 lerroan.

Diruz lagunduko dira klima-aldaketaren aurkako 2023ko borrokan herritarrei klima-aldaketaren aurkako ekintzara deitzeko egiten diren jarduerak.

Laguntza jasoko dute soilik publiko guztientzat egokiak diren ekintzek, baldin eta Asteklima 2023 asterako urteko bigarren seihilekoan egiten badira.

Hona hemen finantzaketaren xede den klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloko herritarren sentsibilizazio- eta erantzunkidetasun-jardueren tipologia:

Hitzaldiak – Jardunaldiak.

Tailerrak – Erakusketak.

Ipuin-kontalaria.

Zinema.

Antzerkia.

Bideo-lehiaketa, argazkigintza eta beste batzuk.

Bisitak – Irteerak – Ibilaldiak.

Erakundeek proposatutako beste jarduera-mota batzuk.

3. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Lehen artikuluan zehaztutako ekintzetarako aurrekontu-zuzkidura lau milioi berrehun mila (4.200.000) eurokoa izango da. Kopuru hori honela banakatzen da:

1.1.– Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroan:

Gehienez ere, zazpiehun eta berrogeita hamar mila (750.000) euro bideratuko dira.

1.2.– Klima-aldaketaren lerroan:

Gehienez ere milioi bat (1.000.000) euro bideratuko dira.

1.3.– Natura-ondarearen lerroan:

Gehienez ere, zazpiehun eta berrogeita hamar mila (750.000) euro bideratuko dira.

1.4.– Ekonomia zirkularraren lerroan:

Gehienez ere bostehun mila (500.000) euro bideratuko dira.

1.5.– Tokiko ekoberrikuntzaren lerroan:

Gehienez ere seiehun mila (600.000) euro bideratuko dira.

1.6.– Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan:

Gehienez ere laurehun mila (400.000) euro bideratuko dira.

1.7.– Asteklima 2023 lerroan:

Gehienez ere berrehun mila (200.000) euro bideratuko dira.

2.– Eskaerarik ez dagoelako edo eskakizunak betetzen ez direlako aipatutako jarduketa-lerroetako bati esleitutako diru-zenbatekoa agortzen ez bada, beste jardun-lerro bati esleitutako diru-zenbatekoari gehitu ahalko zaio, agindu honetako 15. artikuluan aurreikusitako organo eba-luatzaileak egiten duen proposamenaren arabera.

Kasu horretan, 24. artikuluan aurreikusitako ordainketa bakoitzerako aurreikusitako ehunekoa aldatu ahal izango da.

Beste jarduketa-lerro bati esleitutako zenbatekoa handitzea, eta, hala badagokio, 24. artikuluan jasotako ordainketa-aurrerakinetarako aurreikusitako ehunekoen aldaketa, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen ebazpen bidez onetsiko da, Agindu honen 18. artikuluan Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen ebazpena eman aurretik.

Aurreko paragrafoan aipatutako Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.– Erakunde onuradunetako batek jaso duen dirulaguntzari uko egingo balio ezarritako exekuzio-epearen lehen urtean, uko egindako proiektu horri esleitutako kopurua zati batean edo batere ez (aurrekonturik ez edukitzeagatik) diruz lagundutako jarduketetako batera bideratu ahal izango da, Agindu honen 18.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, atal honen babesean diruz lagundutako jarduerak agindu honen 23. artikuluan jasotako gauzatze- eta justifikazio-epeak bete beharko dituzte.

4. artikulua.– Erakunde onuradunentzako eskakizunak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izan daitezke Euskal Autonomia Erki-degoko udalak, mankomunitateak, kontzejuak eta udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko beste edozein toki-erakunde, kuadrillak, eskualdeak, tokiko erakunde autonomoak, tokiko garapen-agen-tziak, tokiko merkataritza-sozietateak, tokiko enpresa-erakunde publikoak, tokiko partzuergoak eta tokiko fundazio publikoak.

Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroan, onuradun izan ahal izango dira, hala-ber, ikerketa-ekintzak (kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lurzoruak eta/edo eraikuntzak eta industria-instalazioak ikertzeko ekintzak, ingurumen-organoak egindako eskakizunen ondo-riozkoak barne) eta berreskuratzeko ekintzak (lurzoru kutsatuak berreskuratzeko ekintzak, bai

industria-jarduerak egin diren lurzoruetan, bai garai batean hondakindegia klandestino gisa erabiltako lurzoruetan, baldin eta berreskuratzeari ekin baino lehen aurretiazko ikerketa-fasea egin bada) egiten dituzten udalaz gaindiko sozietate publikoak.

2.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun ezingo dira izan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikulua 1. apartatua xedatutakoaren arabera eta estatu-laguntzaren kontzeptuari buruz Europako Batzordeak emandako 2016/C 262/01 Jakinarazpenarekin bat etorriz, artikulua horren 1. apartatua jasota dauden erakundeak, jarduera ekonomiko bat gauzatzen badute, haien estatutu juridikoa eta finantzaketa-modua edozein izanik ere. Jarduera ekonomikotzat hartuko da merkatu jakin batean ondasunak edo zerbitzuak eskaintzen dituen edozein jarduera.

3.– Tokiko merkataritza-sozietateek, tokiko garapen-agentziek, tokiko partzuergoek eta tokiko fundazio publikoek eskakizun hauek bete beharko dituzte erakunde onuradun izateko:

a) Kapital soziala, oso-osorik, titulartasun publikokoa izango da.

b) Bazkide gehienak udalak izango dira.

c) Udal parte-hartzaileetako alkateek berariaz izendatutakoak izango dira, diruz lagundu nahien jarduketara gauzatzeko.

4.– Ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. apartatua jasotako inguruabarretan dauden erakundeak. Inguruabar horiek gertatzen diren ala ez erabakitzeko, aintzat hartuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 4. apartatutik 6.era bitartean ezarritakoa, eta egoera bakoitzerako ezarritako irismena izango dute.

5.– Ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan sexu-diskriminazioagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso duten erakundeak, ez eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzeari buruzko Legearen testu bateginaren indarrez debeku horrekin zehatutakoak ere.

5. artikulua.– Erakunde eskatzailearen zenbait eskakizun egiaztatzea.

1.– Eskarretan aukera izango da laguntzen erakunde eskatzaileak berariaz adieraz dezan baimena ematen diola organo kudeatzaileari gainerako datu edo dokumentu guztiak lortu edo egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen ahalmenak.

Baldin eta erakunde eskatzaileak, edozein unetan, horretarako eskubidea baliatu eta uko egiten badio bere datuak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua 1. apartatua e) edo f) letretan xedatutakoaren arabera tratatzeari, xedapen horietan oinarritutako profilak egitea barne, tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak tratatzeari utziko dio, baldin eta ez badu egiaztatzen tratatzeko, edo erreklamazioak egin, baliatu eta defendatzeko, legezko interes jakin batzuk gailentzen zaizkiela interesdunaren interes, eskubide eta askatasunei.

2.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 eta 51.1 bis artikulua aplikatuz (horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onetsi zen), honako betebeharrak hauek erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko dira:

a) Erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen duela administrazioei zein beste erakunde publiko nahiz pribatuei xede bererako eskatzen eta haietatik lortzen dituen laguntza, dirulagun-

tza, diru-sarrera nahiz bestelako baliabide guztien inguruko informazio guztia jakinarazteko, bai eta eskaerak aurkeztu diren dirulaguntza programetan BEZak ere dirulaguntza jaso dezakeen ala ez berriaz adieraztekoa ere.

b) Erakunde eskatzaileak, eskaera egitean, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta dituela.

Erakunde eskatzaileak dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean dituela ulertuko da, baldin eta ez badu zorrik Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein erakunderekin, betearazpen-aldiko dirulaguntzen itzulketengatik. Halaber, erakunde eskatzaileak dirulaguntzak itzulzeagatiko betebeharren ordainketak egunean dituela ulertuko da, baldin eta zorrak zatituta edo geroratuta eta bermatuta badaude edo etetea erabaki bada dagokion itzulketa-ebazpenaren aurkaratzea dela-eta.

c) Erakunde eskatzaileak dirulaguntza eskatzea erabaki duela eta dirulaguntzarekin ordainduko ez den parte finantzatzeko konpromisoa hartu duela.

d) Erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen duela dirulaguntza itzultzeko kokalekuaren berrerabilerak gainbalioak eragiten baditu edo diruz lagundutako jarduketaren kostua hirugarren bati arrakastaz jasanarazi bazaio, laguntzaren gehieneko zenbatekoraino.

e) Erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen duela bere betebeharrak betetzen jarraitzeko dirulaguntzen prozedurak irauten duen bitartean, eskaera egiten denetik justifikatzen den arte.

f) Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroko proiektuen kasuan, kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten lurzoruak ikertzeko ekintzei dagokienez, erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen duela aurreikusitako erabilerarako Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena lortzeko jarduketak egiteko, 5 urteko gehieneko epean, salbu eta lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura amaitu aurretik saneamendu-jarduketak exekutatu behar direnean eta/edo egin behar den jarduketa-kronogramak epe horren luzapena justifikatzen duenean.

g) Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroko proiektuen kasuan, kutsa dezaketen jarduerak jasan dituzten eraikuntzak eta industria-instalazioak ikertzeko ekintzei dagokienez, erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen duela jarduketa hori onesten denetik gehienez 2 urteko epean berreskuratzeko.

h) Ibilguetako hondakinak garbitzeko proiektuen kasuan, erakunde eskatzaileak eta Ura-Uraren Euskal Agentziak jarduketa horiek aurrez adostu dituztela, dagokion Lankidetzeta-protokoloa sinatuta.

i) Tokiko ekoberrikuntzaren lerroko proiektuen kasuan, erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen duela proiektu bakoitzerako berriaz sortutako jarraipen teknikoko lantalde batek proiektua ikuska dezan eta lantalde horretan erabakitakoa betetzen laguntzeko eta bermatzeko.

j) Jasangarritasunerako Hezkuntzaren lerroari dagokionez, erakunde eskatzaileak Eskolako Agenda 21 ezartzen ari den bere lurraldeko ikastetxeren batekin koordinatzeko konpromisoa hartzen du.

k) Asteklima 2023 lerroaren kasuan, erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen duela 2023ko Euskadiko Klima eta Energiaren Asterako berriaz sortutako formatuak eta zabal-kunde-materialak erabiltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa eskuragarri egongo direnak, eta egin beharreko ekitaldiaren amaierako ezaugarrien berri emateko, horretarako dagoen inprimakia erabiliz (egoitza elektronikoa bidez eskuragarri).

Baita honako eskakizun hauek ere:

- a) Erakunde eskatzaileak ez duela zigor edo administrazio-bidetik laguntza edo dirulaguntza publikorik jaso ahal ez izateko zehapenik, eta ez dagoela dirulaguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen inolako legezko debekuren kasuan.
- b) Erakunde eskatzailea itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean badago, dirulaguntzak eta laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzengatik hasitakoak eta artean izapidetzen ari direnak.
- c) Erakunde eskatzailea ez dela erori Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan jasotako dirulaguntzak lortzeko ezintasunean.
- d) Erakunde eskatzailea ez dela erori Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan ekonomia zirkular baterako jasotako dirulaguntzak lortzeko ezintasunean.
- e) Erakunde eskatzaileak ez duela LGTBIfobia-ekintzarik egin, ez eta LGTBIfobia-ekintzarik bultzatu edo sustatu ere, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluekin bat etorritik.
- f) Eskualde-erakundeak parte hartzen duten udalerrietako alkateek dirulaguntzaren xede den jarduketa egiteko espresuki izendatuak izan direla.
- g) Baldin eta erakunde eskatzailea tokiko merkataritza-sozietate bat, tokiko garapen-agentzia bat, tokiko partzuergo bat eta tokiko fundazio publiko bat bada, kapital sozial publikokoa dela, bazkide gehienak udalak direla, eta udalerrri partaideek izendatu dituztela dirulaguntza eskatzea eragin duen jarduketa egiteko.

Era berean, erakunde eskatzaileak adierazi behar du egiazkoak direla eskaeran eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela, orobat, dirulaguntza jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako eskakizunak.

Erantzukizunpeko aitortzearen biltzen diren puntuen egiazkotasuna dokumentazio ordezkaturik aurkeztuta egiaztatu beharko da, eta hori laguntza edo dirulaguntza emateko prozeduraren ebazpena eman baino lehenago egin beharko dute erakunde onuradun gisa aurkezten direnek.

Dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeaz arduratzen den organoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak, edozein unetan eskatu ahal izango du erantzukizunpeko adierazpenean jasotako betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa. Halaber, emandako laguntza edo dirulaguntza osoa justifikatu arte gertatzen den edozein aldaketaren berri eman beharko du erakunde onuradunak.

Erantzukizunpeko adierazpen bati eransten zaion edozein datu edo informazio zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, edo adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, ezin izango da diruz lagundutako jarduketarekin jarraitu egitate horiek jakiten diren unetik bertatik, egon daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe.

6. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, lehen artikuluan ezarritako ekintzak exekutatzeko egindako gastuak izango dira diruz lagun daitezkeen gastuak. Edonola ere, proiektua exekutatzeko aldiaren egindako gastuak bakarrik lagunduko dira diruz.

2.– Ez dira diruz lagunduko honako gastu hauek:

- a) Diruz laguntzen diren ekintzen balio erantsiaren gaineko zergari dagozkionak.
- b) Komunikazio-, partaidetza-, informazio- edo sentsibilizazio-kanpainei dagozkienak, Agindu honetako 2. artikuluan berariaz adierazten diren ekintzetan salbu.
- c) Lursailak erostera bideratutakoak, salbu eta Natura-ondarearen lerroan diruz lagundutako ekintzen kasuan eta 2.2.c) artikuluan jasotako baldintzen arabera.
- d) Lurgaineko balioa edo ustiapen-balioa, kasuan kasuko lursailean mozketak egin, eta lortutako zura saldu egiten bada, kontzeptu horrek diru-sarrerak eragingo lituzke-eta proiektuaren barnean.
- e) Erakunde onuradunaren plantillako langileei dagozkien gastuak, eta diruz lagundu ezin diren gainerako gastuak, dirulaguntzei buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz.
- f) Inpaktua murrizterik lortzen ez duten edo ingurumen-hobekuntzarik ez dakarten gastuak.
- g) Tokiko ekoberrikuntzaren lerroan, azpiegitura eraikitzea dakarten jarduketak, baldin eta ez badira kontuan hartu hiri-ingurumena hobetzeko irizpideak, irizpide ekologikoak eta hiriko ingurumena hobetzeko irizpideak, ez badira paisaian txertatzeko eta natura-ingurunearen gaineko inpaktuak txikiagotzeko ahaleginak egin, edo ez badira natura-ingurunearen kontserbazioarekin bateragarriak.
- h) Beharrezkoak ez diren gastuak, arrazoizkoak ez direnak edo gehiegizkoak direnak, ekonomia- eta kostu-eraginkortasun erlazioaren printzipioen arabera. Gastu horiek Agindu honen artikuluan ezarritako organo ebaluatzaileak zehaztuko ditu. Zehazki, klima-aldaketaren lerroko proiektuen esparruan, karbonoa xurgatzeko proiektuen arloko ekintzei dagokienez zehazki, neurrigabeko gastutzat hartuko dira kanpoko laguntza eta azterketen gastuak, baldin eta aurrekontu globalaren % 30 baino handiagoak badira.

Biodibertsitatearen lerroan eta Ibaiertzeko eta ibilguetako hondakin-bilketaren lerroan, gastu neurrigabe gisa hartuko dira laguntza teknikora (proiektuaren definizioa, jarraipena eta kudeaketa) eta azterketetara bideratutako gastuak, aurrekontu globalaren % 30 baino handiagoak badira, eta/edo komunikazio eta sentsibilizazio-ekintzetara bideratutako gastuak, horiek aurrekontu osoaren % 10 gainditzen badute, bi kasuetan lursailak erosteko erabili den kantitatea kontuan hartu gabe (hala badagokio). Horri dagokionez, exekutatu diren ekintzekin zuzenean lotutako azterketak eta komunikazio-ekintzak baino ez dira diruz laguntzekoak izango, betiere beharrezkoak direla behar bezala justifikatuta.

Era berean, biodibertsitatearen azpilerroan, alferrikako gastutzat hartuko dira inpaktua murriztea eta/edo ingurumen-hobekuntzarik ez dakarten erabilera publikoko ekipamendu-obren gastuak.

Ekonomia zirkularraren lerroan, neurririk gabeko gastutzat joko dira sentsibilizatorako gastuak, aurrekontu globalaren % 20 gainditzen badute.

3.– Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan, Agindu honetako 2. artikuluan deskribatutako Tokiko Agenda 21en edo 2030erako Tokiko Agendaren eta Eskolako Agenda 21en koordinazio-proiektuak gauzatzeko kostuak bakarrik lagunduko dira diruz.

4.– Onuradunak diruz lagundu den jarduera azpikontratatu ahal izango du, osorik edo zati batean. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan zehaztutako araubide juridikoa bete beharko da.

7. artikulua.– Dirulaguntza-eskaerak eta diruz lagun daitezkeen proiektuak aurkezteko mugak.

1.– Ez dago mugarik eskaerak aurkezteko, jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan izan ezik, artikulua honen 3. apartatuan azaldu bezala.

Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroan, erakunde eskatzaileak eskaera bat baino gehiago aurkeztu badu, dirulaguntza eman ahal izango da soilik kokaleku artifizializatu hutsen inbentarioa egiteko eta, gainerako tipologietan, puntuaziorik handiena izan duten bi jarduketarako, baldin eta lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruaren inbentariokoez bestelako kokalekuei badagozkie.

Klima-aldaketaren lerroan, erakundeak eskaera bat baino gehiago aurkeztu badu, dirulaguntza eman ahalko da soilik klima eta energiako plana egiteko eta, gainerako tipologietan, puntuaziorik handiena izan duen jarduketarako.

Natura-ondarearen lerroan, erakundeak eskaera bat baino gehiago aurkeztu badu, puntuaziorik handiena lortu duen jarduketari bakarrik eman ahal izango zaio dirulaguntza.

Ekonomia zirkularraren lerroan, erakundeak eskaera bat baino gehiago aurkeztu badu, dirulaguntza eman ahalko da soilik egiturazko zuntz-zementuarekin lotutako jarduketa bat egiteko eta, gainerako tipologietan, puntuaziorik handiena izan duten bi jardueretarako.

Tokiko ekoberrikuntzaren lerroan, erakundeak eskaera bat baino gehiago aurkeztu badu, puntuaziorik handiena lortu duten bi jarduketei eman ahal izango zaie dirulaguntza.

2.– Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroan, deialdi berean ezin izango dira aurkeztu kokaleku bera aztertzeke edo proiektua idatzi eta, ondoren, berreskuratzeko eskaerak, salbu eta lanak oso aurreratuta badaude eta Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpenaren izapidea hasteko behar den dokumentazioa aurkeztu badute dirulaguntzaren eskaera aurkeztu aurretik.

3.– Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan, dirulaguntza jasotzeko eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du erakunde bakoitzak. Erakundeek ezin izango dute eskaerarik banaka aurkeztu, beren lurralde-eremuan zerbitzu hori ematen duen udalaz gaindiko beste erakunde batek jarduten badu.

Ezarritako mugak kontuan hartzen ez badira, erakunde eskatzaileari eskaeran egindako akatsa konpontzeko eskatuko zaio. Akatsak konpontzen ez baditu, erakunde eskatzaileak laguntza-eskaera guztietan atzera egin duela ulertuko da, gorago ezarritako mugak kontuan izan gabe.

4.– Udalerrri bera ordezkatzeko duten erakunde onuradun desberdinek ezingo dute proiektu berari buruzko eskaerarik aurkeztu, nahiz eta proiektuaren fase desberdinetarako izan.

5.– Diruz laguntzeko moduko gastuaren zenbatekoak gainditzen baditu Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legean (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko

otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora) ezarritako zenbatekoak, gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu onuradunak obrarako, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta haien ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badaude halakoak egiten, ematen edo hornitzen dituzten behar adina erakunde edo gastua dirulaguntza baino lehen egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen artean egindako hautaketa –dirulaguntzaren justifikazioan, edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztu beharko dira– efizientzia eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da. Hautaketa memoria batean justifikatu beharko da proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez denean.

6.– Ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetuz gero, hala nola bidegorriak eta baliokideak edo lursailak, honako arau hauei jarraituko zaie:

a) Onuradunak dirulaguntza eman zen xede zehatzerako erabili beharko ditu ondasunak 10 urteko epean.

Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, eskrituran jaso beharko da inguruabar hori eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa; alderdi horiek dagokion erregistro publikoan inskribatu beharko dira.

b) Aurreko paragrafoan aipatutako xede-betebeharra ez betetzea, edozein kasutan ondasuna besterendu edo kargatuz gero, itzultzeko arrazoia izango da, eta ondasuna itzulketa ordaintzeari atxikita geratuko da haren edukitzailea edozein dela ere, salbu eta erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat denean edo ondasunak fede onez eta titulu zuzenarekin edo merkataritzako nahiz industriako establezimenduekin eskuratu direla justifikatzen denean, inskribatzeko modukoak ez diren ondasun higigarrien kasuan.

8. artikulua.– Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuetatik edo erakunde pribatuetatik helburu bererako jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek, baldin eta diruz lagun daitezkeen jarduerak gainfintzatzen ez badira. Gainfintzaketarik gertatuz gero, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa dagokion neurrian murriztuko da, gainfintzaketara saihesteko.

9. artikulua.– Eskaerak formalizatzea eta aurkezteko epeak.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta 2023ko abuztuaren 7ra arte, egun hori barne.

2.– Bitarteko elektronikoak erabilita aurkeztu ahal izango dira eskaerak, Euskal Autonomia Erki-degoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan.

a) Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroan: https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2023/herrijasangarriak_lurzoruak/web01-tramite/eu/

b) Klima-aldaketaren lerroan: https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2023/herrijasangarriak_klima/web01-tramite/eu/

c) Natura-ondarearen lerroan: https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2023/herrijasangarriak_biodibertsitatea/web01-tramite/eu/

d) Ekonomia zirkularraren lerroan: https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2023/herrijasangarriak_ekonomia/web01-tramite/eu/

e) Tokiko ekoberrikuntzaren lerroan: https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2023/herrijasangarriak_ecoinn/web01-tramite/eu/

f) Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan: https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2023/herrijasangarriak_eag21/web01-tramite/eu/

g) Asteklima 2023 lerroan: https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2023/herrijasangarriak_asteklima2023/web01-tramite/eu/

Helbide horretan eskuragarri egongo dira eskabidea, erantzukizunpeko adierazpena eta eskabidea osatu behar duten dokumentuak, bai eta eskabideak modu telematikoan aurkeztea eta justifikatzea errazteko informazioa ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura-bitarteko elektronikoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

3.– Bitarteko elektronikoen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan izapideak egiteko ordezkari bat izendatu behar bada, pertsona horrek alta emanda egon beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko Ordezkarien Erregistro Elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/ordezkarien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>)

4.– Eskaeraren ondorengo izapideak «Nire karpeta» bidez egin eta jakinaraziko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>)

10. artikulua.– Datu pertsonalen babesa.

1.– Datuak Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta aplikatzekoa den gainerako araudiaren arabera tratatuko dira.

2.– Datu pertsonalak «Ondarea babesteko eta Klima Aldaketa Sustatzeko Laguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

Arduraduna: Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

Helburua: Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzaren dirulaguntzak, bekak eta laguntzak kudeatzea. Garapen jasangarria; ingurumen-hezkuntza; ingurumen-boluntarioria; ingurumen-arloko ezagutza sortzea; lurraldea zaintzeko akordioak.

Legitimazioa: interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzearen alde egindako misio bat betetzeko beharrezko tratamendua.

Hartzaileak: ez da aurreikusten datuak komunikatzea.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarriari JASOTZEN diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarria kontsulta dezakezu gure web-orrian: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/093300-capa2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digtal talak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)

11. artikulua.– Zer dokumentu aurkeztu behar den eskaerarekin batera.

1.– Erakunde eskatzailearen ezaugarriak eta garatu nahi den jarduketa kontuan hartuta, eskaera guztiekin batera, ezinbestez, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren egoitza elektronikoa eskuragarri egongo dira inprimakien ereduak eta aurkeztu beharreko proiektuen gutxieneko edukien aurkibideak:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, behar bezala sinatuta.

b) «Oinarrizko eta harremanetarako datuen» inprimakia.

c) Laguntza eskatzen den jarduketa-lerroari dagokion «Aurrekontua» inprimakia, behar bezala beteta. Aurrekontua kontu-sailen arabera banakatu beharko da, kontzeptuak argi bereizita.

d) «Proiektuaren memoria» inprimakia edo, hala badagokio, laguntza eskatu den jarduketa-lerroari dagozkion proiektu-memoretako gutxieneko edukien aurkibidea. Beharrezkoak diren eremu guztiak bete beharko dira, dirulaguntza eskatzen den proiektu-motaren arabera. Zehazki, «Memoriaren proiektua» inprimakiaren barnean, lerroaren arabera, honako hauek adierazi beharko dira nahitaez: inpaktuaren murrizketako parametro gakoa edo gakoak, kalkuluetan erabiltzen diren xehetasunak eta kontserbazio-egoeraren hobekuntza, natura-ondarearen lerroaren kasuan.

Aurkeztutako dokumentazio gehigarriak ebaluazio teknikorako kontuan izan behar den informazioa badu, nahitaezko bi inprimaki horien apartatuetan berariaz adierazi beharko da zein den dokumentazio gehigarri horretan kontsultatu behar den informazioa (apartatua, kapituluak eta abar).

e) «Kokalekua» inprimakia: Kokaleku batean jardutea proposatzen den kasuetan, erakunde eskatzaileak esku-hartzea exekutatu den lurzati(ar)en mugen identifikazio georreferentziatua aurkeztu beharko du. Proiektuaren kokapen zehatzari buruzko informazioa eman beharko da; ahal dela, jarduketaren xede den lurzati(ar)en katastro-erreferentzia (SIGPAC), edo, bestela, kokalekuaren kokapen zehatzari buruzko beste informazioen bat (UTM30N ETRS89 koordenatuak, etab.).

f) Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroko eskaeren kasuan, erakunde onuradunak kokalekua titulartasun publikokoa dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du. Halaber, titulartasun publiko hori noiz eskuratu zen argitu beharko du, eta kokalekuaren zer ehuneko den udalaren titulartasunekoa ere bai. Aurreko eskakizunak, baita, hala bada, badagokio, Agindu honen 2.2.a) artikuluan aurreikusitako salbuespenak ere, horien berri ematen duen egiaztagiraren bidez (edo egiaztatzeko balio duen beste edozein dokumenturen bidez) justifikatu ahal izango dituzte.

Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroko eskaeretan, jarduketa egingo den kokalekuaren titulartasuna udalarena ez bada, jarduketaren premia egiaztatu beharko da, eta, behar izanez gero, diruz lagundutako jarduketa garatuko den kokalekuan jarduteko gaitasun-titulua egiaztatuko da.

g) Berotegi-efektuko gasen isuriak murriztera bideratutako klima-aldaketaren lerroko ekintzei dagokienez, dirulaguntza eskatzen den jarduketari dagokion isuri-murrizketa zehazteko egindako hipotesiak, kalkuluak edo estimazioak jasota eta horiek azalduta dauden frogagiria atxiki beharko da.

h) Karbonoa xurgatzeko proiektuei buruzko klima-aldaketaren lerroko ekintzei dagokienez, proiektuaren iraunaldiko karbono-xurgapenak zehazteko egindako kalkuluak edo estimazioak jasotzen dituen frogagiria atxiki beharko da. Xurgapenen ex ante kalkulua egiteko metodologia egokia eduki ezean, hori egiteko behar diren datuak erantsi beharko dira, hau da, kokapena (koordinatuak), azalera, landatu beharreko espezieak eta landaketa-esparrua, bai eta hektareako oin-kopurua eta erabilera-mota ere. Jarduketak irauteko konpromisoaren egiaztatzea ere erantsi beharko da.

Gainera, beharrezkoak diren baimenen laburpenen inprimakia aurkeztu beharko da, eta erakunde eskudunek emandako baimenak, halakorik izanez gero (jabari publiko hidraulikoko jarduketak, itsas-lehorreko jabari publikokoak, naturagune babestuetakoak, etab.).

i) Natura-ondarearen lerroko eskaeretan, beharrezkoak diren baimenen laburpenen inprimakia aurkeztu behar da, eta erakunde eskudunek emandako baimenak, halakorik izanez gero (jabari publiko hidraulikoko jarduketak, itsas-lehorreko jabari publikokoak, naturagune babestuetakoak, etab.)

j) Natura-ondarearen lerroko eskaeren kasuan, eta proiektuan lurak erostea jasota badago, behar bezala akreditatutako eta dagokion erregistro ofizialean inskribatutako tasatzaile independente baten ziurtagiria aurkeztu behar da, alegia, jarduketaren xede den lurzati zehatzarena.

k) Berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko ekintzei buruzko Tokiko ekoberrikuntzaren erroaren eskaeren kasuan, 11.1.g) artikuluan aipatzen den dokumentua erantsi beharko da, eta karbonoa xurgatzeko proiektuen kasuan, 11.1.h) artikuluan aipatutako dokumentuak.

2.– Eskatzaileek, borondatez, eta ebaluazio hobea egite aldera, honako agiri hauek aurkeztuko dituzte eskaerekin batera:

a) Proiektua, aurreproiektua eta/edo eskaintza teknikoa, jarduketaren xehetasuna eta faseen arabera banakatutako aurrekontua jasota.

b) Klima-aldaketaren lerroko eskaeren kasuan, hala badagokio, klima-aldaketarekin lotura duen plana, programa edo ordenantza izatea egiaztatzea behar da.

c) Egokitzapen-ekintzen garapenarekin lotuta dauden klima-aldaketaren lerroko eskaeren kasuan, dagokion agintariaren baimena beharko da proiektua garatzeko.

d) Hala dagokionean, tokiko jasangarritasun-politikak beteko direla hitzmatea eta/edo jasangarritasun-prozesuen ebaluazio- eta jarraipen-txostena egitea.

e) Agindu honen 17. artikuluan zehaztutako esleipen-irizpide guztiak behar bezala aplikatzeko beharrezkotzat jotzen diren argibideak.

12. artikulua.– Akatsak zuzentzeko prozedura.

1.– Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak ez badituzte betetzen deialdi honetan ezarritako eskakizun guztiak, edo haien edukia nahikoa ez bada, erakunde eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio gabeziak zuzentzeko edota behar diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko

zaio hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuorde kargua duen pertsonaren ebazpen baten bidez. Ebazpen hori Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikulua aurreikusitako moduan emango da.

2.– Halaber, eskaera izapidetzea onartu ondoren, dirulaguntzak kudeatzeko organo arduranak interesekotzat jotako informazioa eskatu ahalko dio erakunde eskatzaileari, aurkeztutako proiektua egoki balioesteko, eta horretarako 10 eguneko epea emango dio, informazioa eman ezean proiektua eskatutako informazioa kontuan hartu gabe aztertuko dela jakinarazita.

13. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen kudeaketa-lanak egitea eta aurkeztutako eskaerak aztertzea eta ebaluatzea.

14. artikulua.– Erakunde laguntzailea.

1.– Agindu honetan ezartzen diren dirulaguntzak kudeatzeko, Ihobe, SA Sozietate Publikoa erakunde laguntzaile izendatzen da, honako hauek ezarritakoarekin bat: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko eskakizunak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta Ihoberen arteko harremanak lankidetzaren hitzarmen baten bidez artikulatzen dira, eta erakunde horiek sinatu dute lankidetzaren hitzarmen hori.

2.– Ihobe, SAK, erakunde laguntzailea den aldetik, funtzio hauek beteko ditu:

- a) Aurkeztutako dokumentuak ikuskatzea, eta, akatsik aurkituz gero, zuzenketak proposatzea organo kudeatzaileari.
- b) Eskaera egiten duten erakundeek laguntzak eskuratu ahal izateko ezarri diren baldintzak eta eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzea.
- c) 15. artikuluan adierazitako ebaluazio-organoari laguntza ematea eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko lanetan, 17. artikuluan jasotako esleipen-irizpideen arabera.
- d) Jarduera egin den eta dirulaguntzaren helburua bete den egiaztatzea, eta onuradunei jarraipena egitea, dirulaguntzak jasotzeko eta proiektuak exekutatzeko eskakizunak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.
- e) Erakunde onuradunek eskatutako luzapenak bidezkoak diren ala ez balioestea.
- f) Erakunde onuradunei laguntzak ordaindu aurretik diruz lagundutako ekintzak exekutatu izana eta ekintzen kostua ziurtatzen dituzten agiriak egiaztatzea.
- g) Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari proposatzea dirulaguntzak behar bezala kudeatzeko administrazio-neurriak edo bestelako neurriak har ditzala, erakunde

onuradunak agindu honetako baldintza eta eskakizunak ez betetzeagatik hartu behar diren neurriak barne.

15. artikulua.– Organo ebaluatzailea.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, ebaluazio-organo bat eratuko da, honako hauek osatua:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren zuzendaria.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria.

– Ihobe SAren zuzendaria.

2.– Ebaluazio-organoak ebazpen-proposamena egingo dio Ingurumen Jasangarritasuneko sail-buruordeari. Proposamen hori 17. artikuluan adierazitako esleipen-irizpideei eta aurrekontu-mugei egokituko zaie, eta honako hauek bilduko ditu, arrazoiak adierazita: dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak; dirulaguntzen zenbatekoa; dirulaguntza jasoko ez duten proiektuak; ezeztatutako eskaerak, ezeztapenaren arrazoiekin batera; eta ebatzi beharreko beste edozein inguruabar.

16. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– Dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango ditu muga hauek gainditu:

a) Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroan:

	Inbentarioak / Ikerketa / Ingurumen-jarraipena / Informazioa biltzea	Prebentzioa / Berroneratzea / Berreskuratzea
35.000 biztanletik gorako toki-erakundeak edo udalerriaz gaindiko eremuak.	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 90.	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 60.
35.000 biztanletik beherako toki-erakundeak edo udalerriaz gaindiko eremuak.	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 95.	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 95.

Ikerketa- eta berreskuratze-proiektu bakoitzak 60.000 euro jaso ahal izango ditu gehienez dirulaguntza gisa; berreskuratze-jarduketa bakoitzak, berriz, 250.000 euro, gehienez.

Lurzoru hutsen inbentarioen proiektuen, salbuespen-eskaerara zuzendutako txostenen, lurzoruaren gaitasunaren adierazpenen, inbentarioaren aldaketen eta ingurumen-jarraipeneko proiektuen kasuan, dirulaguntza 20.000 eurokoa izango da gehienez.

Erakunde onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 250.000 eurokoa izango da.

b) Klima-aldaketaren lerroan:

7.000 biztanletik gorako toki-erakundeak edo udalerriaz gaindiko eremuak.	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 80.
7.000 biztanletik beherako toki-erakundeak edo udalerriaz gaindiko eremuak.	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 95.

Dirulaguntza 25.000 eurokoa izango da gehienez proiektu bakoitzeko proiektuak eta txosten teknikoak idazteko, eta 80.000 eurokoa gehienez proiektu bakoitzeko esku-hartze jarduketetarako.

Erakunde onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 160.000 eurokoa izango da.

c) Natura-ondarearen lerroan:

7.000 biztanletik gorako toki-erakundeak edo udalerriaz gaindiko eremuak.	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 75.
7.000 biztanletik beherako toki-erakundeak edo udalerriaz gaindiko eremuak.	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 95.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa projektuko 75.000 eurokoa izango da.

Ibaiertzak eta ibilguak garbitzeko proiektuen kasuan, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da.

Erakunde onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 150.000 eurokoa izango da.

d) Ekonomia zirkularraren lerroan:

7.000 biztanletik gorako toki-erakundeak edo udalerriaz gaindiko eremuak.	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 80.
7.000 biztanletik beherako toki-erakundeak edo udalerriaz gaindiko eremuak.	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 95.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 30.000 eurokoa da proiektu bakoitzeko, eta eurokoa udalez gaindiko toki-erakundeek batera eskatutako proiektuen kasuan, honako salbuespen hauekin:

– Autokonpostatze komunitarioaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoko planei buruzko proiektuetan, gehienez ere 3.500 euroko dirulaguntza emango da.

– «Toki-titulartasuneko konpostatze komunitarioko instalazio eta jardueretatik datorren konpostaren kontrol analitikoak» proiektuetan, gehienez ere 3.000 euroko dirulaguntza emango da proiektu bakoitzeko.

– Udal-ordenantzak idazteko proiektuetan, diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoa 4.000 eurokoa izango da.

Erakunde onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 150.000 eurokoa izango da.

e) Tokiko ekoberrikuntzaren lerroan:

Dirulaguntzak ezingo du gainditu diruz lagun daitezkeen gastuen % 95, hogeita bost mila (25.000) euroko mugarekin proiektuak eta txosten teknikoak idazteko proiektu bakoitzeko eta lau-roi mila (80.000) euroko mugarekin esku-hartze jarduketetarako.

Erakunde onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 160.000 eurokoa izango da.

f) Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan:

Laguntza ez da izango diruz lagun daitezkeen gastuen % 55etik gorakoa, ezta 16.000 eurotik gorakoa ere, erakunde onuradun bakoitzeko.

7.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrien edo toki-erakundeen kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoa % 45ekoa izango da gutxienez.

g) Aste klima 2023 lerroan:

Dirulaguntzak ezingo du gainditu diruz lagun daitezkeen gastuen zenbatekoaren % 80 7.000 biztanletik gorako toki-erakundeen edo udalaz gaindiko eremuen kasuan, edo diruz lagun daitezkeen gastuen % 95 7.000 biztanletik beherako toki-erakundeen edo udalaz gaindiko eremuen kasuan.

Toki-erakunde bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 7.000 eurokoa izango da, eta udalaz gaindiko area bat gehitzen duen toki-erakunde bakoitzeko, berriz, 10.000 eurokoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, jarduketa-mota bakoitzerako gehieneko unitate-kopuru hauek hartuko dira kontuan:

Jarduketa-tipologia	Unitateko gehieneko zenbatekoa (BEZ gabe)
Hitzaldiak- Jardunaldia	450 €
Tailerrak - Erakusketak	2.000 €
Ipuin-kontalariak	550 €
Zinema	800 €
Antzerkia	1.000 €
Bideo- edo argazki-lehiaketa	1.000 €
Bisitak – Irteerak – Ibilaldiak	500 €
Beste jarduera-mota batzuk	1.000 €

2.– Oro har, a), b), c), d), e), f) eta g) letren lerroei dagokienez, erakunde eskatzailea eskualde-erakunde bat bada, eta proiektuan parte hartzen duten udalerrien % 75en biztanle-kopurua ez bada ezarritakoa baino handiagoa, kopuru horretatik beherakoetarako ezarritako balorazio-irizpidea baliatuko da.

17. artikulua.– Dirulaguntzak emateko prozedurak eta esleipen-irizpideak.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez esleituko dira artikuluan aipatzen diren lerroetako bakoitzean, Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan eta Aste klima 2023 lerroan izan ezik, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.4 artikuluan. Organo ebaluatzaileak egiten duen balorazio-fasean –artikulu honen 4. apartatuan ezarritako irizpideen arabera– 100 puntutik gutxienez 50 puntu lortzen dituzten jarduketak bakarrik lagunduko dira diruz, Tokiko ekoberrikuntzaren lerroan izan ezik. Kasu horretan, 100 puntutik gutxienez 60 puntu lortzen dituzten proiektuei soilik emango zaie dirulaguntza.

50 puntu baino gehiago (60 tokiko ekoberrikuntzaren lerroko proiektuen kasuan) dituzten proiektuei dagokionez, lehentasun-hurrenkerak ez du ekarriko diruz lagundutako proiektu bakoitzeko jaso beharreko zenbatekoa handitzea. Irizpide hori balorazio-fasean 50 puntu baino gehiago (60 puntu baino gehiago Tokiko ekoberrikuntzaren lerroko proiektuen kasuan) lortzen dituzten aurkeztutako proiektu guztietarako aurrekontu-zuzkidurarik ez dagoenean soilik hartuko da kontuan, eta puntuazio altuenekoak diruz lagunduko dira lehenik, jarduketa-lerro bakoitzaren aurrekontu-kreditua agortu arte.

2.– Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroko eta Aste klima 2023 lerroko laguntzak norgehiagokarik gabeko konkurrentzia bidez esleituko dira, eta zenbateko erabilgarriaren hainbanaketa bidez kontabilizatuko dira, 16.1.f) eta 16.1.g) artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

3.– Proiektu bakoitzari egokitutako dirulaguntza agindu honetako 6. eta 16. artikuluetan jasotako irizpideen arabera zehaztuko da.

4.– Dirulaguntzak irizpide hauen arabera emango dira, kasu bakoitzean zehaztutako haztapena kontuan hartuta:

a) Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroan:

a.1.– Jarduketaren izaera berritzaile eta estrategikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren estrategia, plan eta programekin bat etorriz. Gehienez, 20 puntu.

Besteak beste, honako hauek joko dira estrategikotzat:

– Toki-erakundeak jasangarritasun-politikak betetzeko hitza ematea, zehazki, lurzoria babestekoa, eta jasangarritasun-prozesuaren ebaluazio- eta segimendu-txostena. Alderdi hori ofizios egiaztatuko da Udalsarea 2030 sareari dagozkion eta kasuan kasuko Udal Politiken Ebaluazio Programan parte hartzen duten udaletan.

– Ikerketaren kasuan, kutsaduraren ezaugarriak karakterizatzeko eta ebaluatzeko teknika berritzaileak erabiltzea, eta leheneratzearenean in situ edo on site teknologiak aplikatzea, alde batera utzita induskatzea eta kanpo-kudeaketa, bioberreskuratze-konponbideak barne.

– Berreskuratzeari dagokionez, proiektura gehitzea ingurumenaren arloko beste arazo batzuen efektuak ahalik eta txikiak izan daitezzen laguntzen duten elementuak (besteak beste, klima-aldaketa apaltzea, hondeatutako materialen kopurua gutxitzea eta bertan berriz erabiltzea edo eraikuntza jasangarriko neurriak ezartzea).

a.2.– Kokalekuan eta inguruko lurretan gizakien osasunean edo ingurumenean izan ditzakeen eraginak. Besteak beste, honako hauek lehenetsiko dira: gaur egun ekipamendu komunitario baterako erabiltzen direnak, erabileraren sentikortasuna dela eta; Natura 2000 Sarean, interes hidrogeologikoko eremuetan edo hirigintzako berrerabilpenari dagokionez lehentasunezko interesa duten hiriguneetan dauden kokalekuak. Gehienez, 40 puntu.

a.3.– Ekintzaren emaitzak (aurreikusitako inpaktua, biztanleria onuraduna, eta beste ingurumen-arlo batzuen gaineko eragina). Gehienez, 20 puntu.

a.4.– Jarduketaren kalitatea, bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta finantzazkoa, eragin-kortasuna eta estrapolagarritasuna. Gehienez, 20 puntu.

b) Klima-aldaketaren lerroan:

b.1.– Jarduketaren izaera estrategikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Oroko-
rreko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren estrategia, plan eta
programekin bat etorri. Gehienez, 10 puntu.

Besteak beste, honako hauek joko dira estrategikotzat:

- Toki-erakundeak jasangarritasun-politikak betetzeko hitza ematea, eta jasangarritasun-pro-
zesuaren ebaluazio eta segimendu-txostena egitea. Alderdi hori ofizioz egiaztatuko da
Udalsarea 2030 sareari dagozkion eta kasuan kasuko Udal Politiken Ebaluazio Programan
parte hartzen duten udaletan.
- Horrez gain, balioetsiko da udaleko berotegi-efektuko gas-isurien inbentarioaren kalkulu
sistematikoa egitea.
- Klima-aldaketara egokitzeko arloan, bereziki, balioetsiko dira egokitzapen-plan batekin,
kalteberatasun-analisi batekin eta eskaeran justifikatutako klima-arriskuarekin koherenteak
izango diren ekintzak.
- Klima eta energia-planen kasuan, eskaeran justifikatutako kalteberatasuna eta klima-arriskua.

b.2.– Ekintzaren emaitzak (aurreikusitako inpaktua, eragindako biztanleria, eta beste ingu-
rumen-arlo batzuen gaineko eragina, positiboa edo negatiboa). Gehienez, 40 puntu.

Honako faktore hauen ondoriozko inpaktuen murrizketaren kuantifikazioa balioetsiko da:

- Proiektuaren ingurumen-hobekuntza.
- Ingurumen-inpaktuen murrizketa kalkulatzeko metodologia.
- Inpaktu positiboa eremu batean baino gehiagotan (klima-aldaketa eta natura-ondarea,
ekonomia eta gizarte-eremua, lurzorua babesa edo beste batzuk).

b.3.– Proiektuaren kalitate teknikoa eta ekonomikoa (proiektua azaltzeko memoria tekniko eta
ekonomiko xehatuen kalitatea, eta, hala dagokionean, kalkuluak eta aurkeztutako murrizketak),
ekintzaren kostua/efizientzia edo kostua/etekina erlazioa, diagnostikoa eta jarraipen-proposa-
mena. Gehienez, 50 puntu.

Halaber, balioetsiko dira:

- Proiektuaren helburuak eta barne-koherentzia.
- Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna; horretarako, kontuan hartuko dira proiektu-
tua garatzeko proposatutako metodologia, erakundeen eta administrazioen artean landu
beharreko koordinazioa, jarraipen-plan bat aurkeztea, fasekako aurrekontu zehatza eta
interes-taldeen inplikazioa.

c) Natura-ondarearen lerroan:

Biodibertsitatea babestearekin lotutako jarduketetan, hauek dira irizpideak:

1.– Jarduketaren izaera estrategikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Oroko-
rreko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren estrategia, plan eta
programekin bat etorri. Gehienez, 5 puntu.

Besteak beste, honako hauek joko dira estrategikotzat:

- Ura-Uraren Euskal Agentziarekin edo foru-aldundiekin lankidetzan egitea proiektua,
baldin eta lankidetzan hori beharrezkotzat jotzen bada edo proiektuari hobekuntza nabar-
mena badakarkio.

– Toki-erakundeak jasangarritasun-politikak betetzeko hitza ematea, eta jasangarritasun-prozesuaren ebaluazio eta segimendu-txostena egitea. Alderdi hori ofizioz egiaztatuko da Udalsarea 2030 sareari dagozkion eta kasuan kasuko Udal Politiken Ebaluazio Programan parte hartzen duten udaletan.

– Proposatutako ekintza natura-ondarea zaintzearen arloan dagoen plangintza edo estrategiarekin koherentea izatea, hala eskualde nola toki mailan, bai eta, zehazki naturagune babestuetan egiten diren edo espezie katalogatuak helburutzat dituzten ekintzei dagokienez, dagozkien indarreko kudeaketa-tresnekin.

2.– Jarduera non gauzatuko den edo jarduketan xede diren habitatak/espezieak zeintzuk diren. Gehienez, 25 puntu.

2.1.– Natura-ondarearen naturagune babestuen barruan kokatutako lursailak: Naturagune babestuak (Parke naturala, Natura Erreserba, Natura Monumentua edo Paisaia Natural Babestua), Natura 2000 Sareko guneak edo nazioarteko tresnak aplikatuz babestutako guneak (Urdaibai Biosfera Erreserba, Euskal Kostaldeko Geoparkea edo Nazioarteko Garrantziko Hezeguneak). Gehienez, 25 puntu.

2.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekiko guneen barruan jasotako lursailak. Gehienez, 20 puntu.

2.3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren II. eta III. multzoetako hezeguneetan sartutako lursailak. Gehienez, 20 puntu.

2.4.– Aurreko epigrafeetan sartuta egon ez arren Batasunaren edo eskualdearen intereseko flora basatiko eta fauna basatiko espezieak dituzten lursailak (espezie horiek sartuta egon behar dute Hegaztien Zuzentarauaren eta Habitaten Zuzentarauaren eranskinetan edo Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan). Gehienez, 20 puntu.

2.5.– Eskualdeko konektagarritasun ekologikorako eremu garrantzitsuak eta/edo eremu degradatuak berreskuratzeko tokiko aukera-eremuak. Gehienez, 15 puntu.

Jarduketa-eremu baten gainean hainbat kalifikazio egiten baldin badira, puntu gehien duena balioetsiko da.

3.– Aurreikusitako ekintzen ondorioz habitatek eta/edo espezieek izan ditzaketen hobekuntzak. Gehienez, 35 puntu.

Haren balorazioa egiteko, honako hauek kuantifikatuko dira, ahal izanez gero: jarduketan xede diren habitat eta/edo espezieen mehatxu-maila eta kontserbazio-egoera, eragindako populazio edo komunitateen garrantzi erlatiboa, eta zehaztutako helburuak lortzeko eta horien kontserbazio eta/edo leheneratze-egoera hobetzeko aurreikusi diren ekintzen garrantzia. Era berean, ekintzen indarraldiarekin lotutako alderdiak izango dira kontuan, denborari dagokionez zein horiek mantentzeko operazioen premiari dagokionez.

4.– Proiektuaren kalitate teknikoa eta bideragarritasun ekonomikoa. Gehienez, 25 puntu.

Besteak beste, honelako alderdiak balioetsiko dira: memoria tekniko eta ekonomikoaren kalitatea eta xehetasun-maila, ekintzaren efizientzia ekonomikoa, eta ondoren mantentzeko proposamenik dagoen.

5.– Komunikatzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak gizartean eragiteko ahalmena, proiektuak jorratzen duen arazo espezifikoa kontuan hartuta (ekintzak, xede-publikoa, etab.). Gehienez, 10 puntu.

Geodibertsitatea babestearekin lotutako jarduketetan, hauek dira irizpideak:

1.– Jarduketaren izaera estrategikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren estrategia, plan eta programekin bat etorri. Gehienez, 5 puntu.

Besteak beste, honako hauek joko dira estrategikotzat:

– Ura-Uraren Euskal Agentziarekin edo foru-aldundiekin lankidetzan egitea proiektua.

– Meategiekin zerikusia duten Interes Geologikoko Lekuei balioa emateko proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzarekin edo Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) koordinatuta egitea, koordinazio hori beharrezkotzat jotzen bada edo proiektuari hobekuntza nabarmena ekartzen badio.

– Toki-erakundeak jasangarritasun-politikak betetzeko hitza ematea, eta jasangarritasun-prozesuaren ebaluazio eta segimendu-txostena egitea. Alderdi hori ofizioz egiaztatuko da Udalsarea 2030 sareari dagozkion eta kasuan kasuko Udal Politiken Ebaluazio Programan parte hartzen duten udaletan.

2.– Jarduketan xedea den jarduera non gauzatuko den. Gehienez, 25 puntu.

2.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan jasotako Interes Geologikoko Lekuak; lurralde-plan partzialetan edo hiri-antolamenduko plan orokorretan jasotako lekuak; Naturagune Babestuetako eremuak (Parke Naturala, Natura Erreserba, Natura Monumentua edo Paisaia Natural Babestua); Natura 2000 Sareko gunek; nazioarteko tresnak aplikatuz babestutako gunek (Urdaibai Biosfera Erreserba, Euskal Kostaldeko Geoparkea eta Nazioarteko Garrantziko Hezeguneak); edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plan Sektorialaren II. eta III. multzoetako hezeguneetan sartutako gunek. Gehienez, 25 puntu.

2.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan, lurralde-plan partzialetan edo hiri-antolamenduko plan orokorretan jasotako interes geologikoko lekuak, lehen aipatutako naturagune babestuetatik kanpo. Gehienez, 20 puntu.

2.3.– Arestian aipatutako naturaguneetan dauden beste inbentario batzuetan jasotako interes geologikoko lekuak. Gehienez, 20 puntu.

2.4.– Arestian aipatutako naturaguneetatik kanpoko beste inbentario batzuetan jasotako interes geologikoko lekuak. Gehienez, 15 puntu.

Jarduketa-eremu baten gainean hainbat kalifikazio egiten baldin badira, puntu gehien duena balioetsiko da.

3.– Aurreikusitako ekintzen ondorioz interes geologikoko lekuek izan ditzaketen hobekuntzak. Gehienez, 35 puntu. Balorazioa egiteko, honako hauek kuantifikatuko dira, ahal izanez gero: nazioartean, estatuan edo autonomia-erkidegoan duen garrantzia; kalteberetasun-maila eta hondatze, espolioazio eta abarren arriskua; eta interes zientifikoa, turistikoa edo hezitzaile/ dibulgaziozkoa.

4.– Proiektuaren kalitate teknikoa eta bideragarritasun ekonomikoa. Gehienez, 25 puntu.

5.– Komunikazio- eta zabalkunde-jarduerek gizartean izan dezaketen inpaktua. Gehienez, 10 puntu.

Ibaiertzak eta ibilguak garbitzearekin lotutako jarduketetan, hauek dira irizpideak:

1.– Jarduketaren izaera estrategikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren estrategia, plan eta programekin bat etorriz. Gehienez, 5 puntu.

Estrategiko gisa balioetsiko da toki-erakundeak jasangarritasun-politikak betetzeko hitza ematea eta jasangarritasun-prozesuaren ebaluazio- eta jarraipen-txostena egitea. Alderdi hori ofizioz egiaztatuko da Udalsarea 2030 sareari dagozkion eta kasuan kasuko Udal Politiken Ebaluazio Programan parte hartzen duten udaletan.

2.– Proposamenaren kalitate teknikoa (proposatutako metodologia, arroko beste udalerrri batzuekin koordinatzea, elkarteak inplikatzeko, biodibertsitatea kontserbatzeko eta babes-teko neurriak deskribatzea) eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa eta kostua/etekina erlazioa. Gehienez, 40 puntu.

3.– Ekintzaren emaitzak (aurreikusitako inpaktua, ibaiertzean garbitu beharreko metro linealak, kendu beharreko hondakin-kantitatea, biztanleria onuraduna eta ingurumenaren beste arlo batzuen gaineko eragina, positiboa edo negatiboa). Gehienez, 40 puntu.

4.– Proposatutako sentsibilizazio- eta dibulgazio-ekintzek gizartean eragiteko ahalmena, proiektuak jorratzen duen arazo espezifikoak kontuan hartuta (ekintzak, xede-publikoa, etab.). Gehienez, 15 puntu.

d) Ekonomia zirkularraren lerroan:

d.1.– Jarduketaren izaera berritzaile eta estrategikoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren estrategia, plan eta programekin bat etorriz. Gehienez, 25 puntu.

Besteak beste, honako hauek joko dira estrategikotzat:

– Toki-erakundeak jasangarritasun-politikak betetzeko hitza ematea, eta jasangarritasun-prozesuaren ebaluazio eta segimendu-txostena egitea. Alderdi hori ofizioz egiaztatuko da Udalsarea 2030 sareari dagozkion eta kasuan kasuko Udal Politiken Ebaluazio Programan parte hartzen duten udaletan.

– Toki-erakundearen hondakin-plan bat egotearekin koherentea den ekintza, EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Planaren helburuekin bat etorriz.

– Beste udalerrri batzuetan egin ez diren ekonomia zirkularra lortzeko edo hondakin arazo-tsuak kudeatzeko neurrien ezarpen-jarduketa lehenetsiak; horien ezarpena behar bezala justifikatu beharko da ohiko teknikak erabiltzen ez direnean.

d.2.– Ekintzaren emaitzak (aurreikusitako inpaktua murriztea, eragindako biztanleria, inplikaturako eragileak eta beste ingurumen-arlo batzuen gaineko eragina, positiboa edo negatiboa). Gehienez, 45 puntu.

d.3.– Proiektuaren kalitate teknikoa eta ekonomikoa (proiektua azaltzeko memoria tekniko eta ekonomikoaren kalitatea eta xehetasun-maila, eta, hala dagokionean, kalkuluak eta aurkeztutako

inpaktu-murrizketak), ekintzaren kostua/etekina erlazioa, diagnostikoa eta jarraipen-proposamena. Gehienez, 30 puntu.

e) Tokiko ekoberrikuntzaren lerroan:

e.1.– Jarduketaren izaera estrategikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren estrategia, plan eta programekin eta udal-inplikazioarekin bat etorriz. Gehienez, 15 puntu.

Estrategikotzat hartuko da, besteak beste, proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren lehentasunekin lerrokatzea eta arlo horretako Europako politikekin lerrokatzea, eta, zehazki, honako hauei egiten dien ekarpena:

- Eusko Legebiltzarraren Klima-larrialdiari buruzko Adierazpena.
- Eusko Jaurlaritzaren Klima-larrialdiari buruzko Adierazpen instituzionala.
- Klima Aldaketaren aurkako Euskal Estrategia KLIMA 2050.
- Dagozkion Garapen Jasangarrirako Helburuak.

e.2.– Udal-inplikazioari dagokionez, honako hauek balioetsiko dira:

- Udal-erregulazioa eta/edo -plangintza sektoriala egotea (ordenantzak, klima eta energiako tokiko planak, udalaren mailan biodibertsitatea kontserbatzeko estrategiak, etab.).
- Udalsarea 2030 Sareko kide izatea. Informazio hori ofizioz berrikusiko da.
- Udalaren inplikazioa jasangarritasunarekin (tokiko ekintza-planen ebaluazioa eta adierazlearen kalkulua) eta Udalsarea 2030en (lantaldeetan parte-hartzea).
- Barne-zeharkakotasuna sustatzea proiektuaren koordinazioan.
- Erakunde osoan edo bulegoen, zerbitzuen edo sailen parte batean Environmental Management and Audit Scheme (EMAS) ziurtagiria edukitzea. Informazio hori ofizioz berrikusiko da.

e.3.– Proiektuaren helburuak, kalitatea eta bideragarritasuna, eta inpaktuen murrizketa. Gehienez, 50 puntu. Balioetsiko dira, besteak beste:

- Proiektuaren helburuak eta barne-koherentzia.
- Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna; horretarako, kontuan hartuko dira proiektua garatzeko proposatutako metodologia, erakundeen eta administrazioen artean landu beharreko koordinazioa, proiektuaren jarraipen-plan bat aurkeztea, fasekako aurrekontu zehatza eta interes-taldein inplikazioa proiektuaren garapenean.
- Proiektuaren ingurumen-hobekuntzatik eratorritako inpaktuen murrizketaren kuantifikazioa, ingurumen-inpaktuak murrizteko kalkulu-metodologia bat aurkeztea eta inpaktu positiboa eremu batean baino gehiagotan (klima-aldaketa eta natura-ondarea, ekonomia eta gizarte-eremua, lurzoruen babesa edo beste batzuk).

e.4.– Proiektuaren izaera berritzailea, erakustekoa, eraldaketakoa edo proiektua ezartzeko beharrezko motibazioa. Gehienez, 35 puntu.

Balioetsiko dira, besteak beste:

- Proposamenaren berrikuntza-maila.

- Proiektua garatzeko lankidetzak publiko eta/edo pribatuko akordioak egotea (zentro teknologikoak, klusterra, unibertsitatea, etab.)
- Proiektuaren erakustaldi-izaera; horretarako, proiektua beste udalerrri batzuetara transferitzeko bideragarritasuna balioetsiko da, bai eta kanpo-finantzaketa posibleko ikuspegia ere, hala nola Europako laguntza-lerroak (Horizon 2020, Life) eta estatukoak (Biodibertsitate Fundazioa, etab.)
- Proiektuak udal-ingurunean duen eraldatze-gaitasuna.

f) Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroan:

Tokiko Agenda 21en edo Tokiko 2030 Agendaren eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzetarako eskaera guztiak onartuko dira, baldin eta 2.f) artikuluan zehaztutako eskakizunak betetzen badituzte.

g) Asteklima 2023 lerroan:

Herritarrak klima-aldaketaren arloan mobilizatzeko tokiko eremuko jarduerak sustatzen dituzten ekintzetarako eskaera guztiak onartuko dira, betiere Agindu honen 2.g) artikuluan definitutako eskakizunak betetzen badituzte.

18. artikulua.– Deialdiaren ebazpena.

1.– Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordeak, ebaluazio-organoak igorritako proposamen arrazoitua ikusita, deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko ebazpena izenpetu eta jakinaraziko du sei hilabeteko epean, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ebazpen horren berri emango zaie interesdunei Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz eta egoitza elektronikoaren bidez interesdunei bana-banako jakinarazpena eginez helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Epe hori igaro eta zenbaki honen lehenengo paragrafoan ezarritako jakinarazpena egin ez bada, dirulaguntzaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek, hala xedatzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.9 artikulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe administrazioak berariaz ebazteko duen betebeharra.

2.– Ebazpenean zehaztuko da eskatutako dirulaguntzak emango diren edo, hala badagokio, ukatuko diren. Laguntzak ematen badira, honako hauek adieraziko dira: erakunde onuraduna, diruz lagundutako proiektua, norgehiagoka bidez proposatutako proiektuen kasuan lortutako puntuazioa, diruz lagun daitezkeen gastuen zenbatekoa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta 3. artikuluan adierazitako ordainketetarako behin betiko ehunekoak; eta laguntzak ukatzen badira, berriz, zergatik ukatu diren.

Halaber, erakunde onuradunen batek uko egiten badio jaso duen dirulaguntzari, ezarritako exekuzio-epearen lehen urtearen barnean, eta erabat edo zati batean banatu gabe geratu diren dirulaguntza-lerroetako funts-aldaketaren kasuan, ebazpenean zehaztuta egongo da partez diruz lagundutako proiektuen eta aurrekontu ezagatik dirulaguntzarik gabe geratutakoen lehen-tasun-hurrenkera, dirulaguntzak jaso ditzaten.

Uko egin aurretik dirulaguntzaren zati bat ordaintzen bada, uko egindako zenbatekoa dagokion berandutze-interesarekin gehituko da.

3.– Dirulaguntza horiek emateko –eta, bidezko denean, ordaintzeko– ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo euskal administrazio instituzionala eta euskal sektore publikoa osatzen duten administrazioek emandako izaera bereko dirulaguntzengatik hasitakoak eta artean izapidetzen ari direnak.

4.– Ezin izango dituzte agindu honetako dirulaguntzak eskuratu dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen debeku edo zehapen administratibo edo penalen bat duten erakundeek.

5.– Aurreko paragrafoetan aipatzen den ebazpenak ez du amaitzen administrazio-bidea, eta, horren aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango diote erakunde interesdunek bai organoari berari, bai Ingurumen, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu edo atzitu –hala badagokio– eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

19. artikulua.– Baldintza-agiria.

Proiektu bakoitzaren ezaugarri zehatzak kontuan hartuta, bidezkoa denean, diruz lagundutako proiektua gauzatzeko nahitaez bete beharreko baldintza teknikoak eta ekonomikoak ezarriko dira. Baldintza horiek erakunde onuradun bakoitzari banan-banan jakinaraziko zaion baldintza-agiri batean jasoko dira, Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroko eta Asteklima 2023 lerroko proiektuen kasuan izan ezik.

20. artikulua.– Erakunde onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen erakunde onuradunek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. artikuluan adierazitakoak ere, eta zehazki baldintza hauek:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea, eta, horretarako, agindu honetan eta, hala badagokio, agindu honen 19. artikuluan zehaztutako baldintza-agirian aipatutako baldintza eta arau guztiak onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman dela jakinarazten den egunetik hasi eta hamar egun balioduneko epean berariaz uko egiten ez bazaio, onartu egin dela ulertuko da.

2.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Kontuen Euskal Epaitegiak, laguntzen xedea fiskalizatzeko eginkizunak betez, eskatzen dieten informazio oro ematea, eta bai lhobe SA erakunde laguntzaileak bai organo emaileak datuak egiaztatzeko egin beharreko jarduketei men egitea, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz eskatutako informazio oro emanez.

3.– Proiektuan edozein arrazoi dela medio aldaketak eginez gero lehenbailehen jakinaraztea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, aldaketa horien onspena eskatzeko. Era berean, dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatuz gero, erakunde emaileari horren berri eman beharko zaio.

4.– Diruz lagundutako ekintza exekutatzea eta justifikatzea, agindu honetako 23. artikuluan ezarritako epeetan.

5.– Dirulaguntza zertarako eman den, xede jakin horretarako erabiltzea, baldin eta 22. artikuluan, baldintzak aldatzeari buruzkoan, finkatutakoa aplikatu behar ez bada.

6.– Proiektuak exekutatzeko egoki diren lizentziak, baimenak eta gainerako eskakizun sektoria-lak betez.

7.– Edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrerarik lortuz gero, inguruabar horren berri izan ondorengo hamar egun balioduneko epean horren berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, eta adieraztea, halaber, organo emalea eta laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoa zein diren.

8.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari doan eta era ez-esklusiboan uztea proiektuan jasotako informazio teknikoa, pedagogikoa eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren informazio-sistemetan txerta ditzan eta haren zabalkundea edo argitalpena egin dadin edozein baliabide edo formatu bibliografikotan, ikus-entzunezkotan, informatikotan edota teknikaren erabilerak ahalbidetzen duenetan. Edonola ere, jabetza intelektualaren eskubideak errespetatuko dira.

Natura-ondarearen proiektuen kasuan, dirulaguntza hau aplikatzeko lanetarako sortzen diren dokumentuak, materialak eta datu-baseak «Ingurumenari buruzko informazioa bidaltzeko jarraibideak» dokumentuan azaltzen den bezala aurkeztuko dira. Hemen eskura daitezke jarraibide horiek: <https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-informazioa-bidaltzeko-jarraibideak/web01-s2ing/eu/>

Natura-ondareari buruzko ezagutza hobetzeko jarduerak barnean hartzen dituzten proiektuetan, jarduera diseinatzeko orduan «Biodibertsitateari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak diseinatzeko gida»ren edukiari jarraitu beharko zaio. (https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guiabidrex/eu_def/adjuntos/bidrexgida.pdf)

9.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskatzen dituen ingurumen-adierazleen eta/edo adierazle teknikoen berri ematea. Adierazle horiek dagokion Baldintza-agirian zehaztuko dira.

10.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 18. artikuluan jasotako moduan, publizitatea emateko betebeharrak betez, erakunde onuradunek laguntzen deialdi honen bitartez lortutako babesaren berri emango dute jendaurrean:

a) Beren webgunean diruz lagundutako proiektua deskribatuz.

b) Gutxienez kartel bat jarritz, dirulaguntzaren behin betiko ebazpenarekin batera jakinaraziko den ereduaren arabera. Kartel horretan, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso dutela aipatzeaz gain, proiektuari buruzko informazioa jasoko dute. Gutxienez A3 neurrikoa izango da eta jendeak ongi ikusteko moduko tokian egongo da, eraikinean sartzeko atearen edo ateen burutik gertu, edo jarduketa egiten den toki zehatzean. Kartel hori 2 hilabetez egongo da ikusgai gutxienez, dirulaguntza ematea jakinarazten denetik aurrera, eta 2 hilabete gehiagoz proiektuaren amaierako justifikazioa aurkezteko unean.

c) Asteklima 2023 lerroaren kasu espezifikoan, Asteklima astea egin baino 15 egun lehenago, erakunde onuradunak egingo den ekitaldiaren behin betiko ezaugarrien berri emango du egoitza elektronikoen bidez, horiek guztien zabalkundea egiteko helburuarekin. Gainera, ekitaldi eta jarduera horiei dagokienez, 2023ko Euskadiko Klima eta Energiaren Asterako berariaz sortutako formatu eta materialak erabiliko dira.

Ekitaldien berri emateko formatuak eta zabalkunde-materialak erakunde onuradunen eskura daude egoitza elektronikoan (https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2022/herrijasangarriak_asteklima2022/web01-tramite/eu/)

11.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren babes aipatzea egiten diren dokumentuetan eta prentsa-komunikazioetan, bai eta proiektuaren publizitatean ere. Horrela, kartel eta zabalkunde eta publizitate-materialetan, eta zehazki diruz laguntzen diren obra, ibilgailu edo ekipamenduetan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren logotipoak sartu beharko dira, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan xedatutakoaren arabera (<https://www.euskadi.eus/erakunde-ikurrak-eta-nortasuna/web01-s1ezaleh/eu/>)

12.– Erakunde onuraduna Udalsarea 2030ekoa bada, sarearen logotipoa ere txertatuko da.

13.– Zabalkunde publikorako egiten diren kartel, testu eta dokumentu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Jarduketak herritarrekin harremanetan egotea eskatzen badu, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eta hizkuntza horietan artatzeko aukera eman beharko zaie herritarrei.

14.– Argitalpenik eginez gero, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari bidali beharko zaio euskarri digitalean.

15.– Egiten diren dokumentu eta ekintzek genero-ikuspegia txertatuko dute, eta hizkuntzaren eta irudiaren erabileran ez da bazterketa-elementurik egongo.

16.– Inprimatu behar badira, proiektua garatzean lantzen diren dokumentuek baldintza hauek bete beharko dituzte, ahal den neurrian:

a) Ahal den neurrian, inprimatzeen kopurua murriztu beharko da, beharretara ahalik eta gehien egokituz (bilerako parte-hartzaileen kopurua, etab.).

b) Inprimatzeko, erakunde onuradunak paper birziklatua eta klororik gabea erabili beharko du proiektutik aterako diren material inprimatu guztietan (txostenak, bileretarako dokumentazioa). DIN A4 edo DIN A3-n inprimatu ezin diren planoetarako bakarrik erabili ahal izango da paper birziklatugabea, edota merkatuan birziklatutako aukerarik ez duten bestelako paper-motetarako. Kasu horietan, paperak kudeaketa jasangarria eta/edo birziklatua duten basoetako zur-zuntzaren % 20 izan beharko du gutxienez.

c) Inprimatutako txostenak eta dokumentuak bi aldeetatik inprimatuko dira, zuri-beltzean; irizpide orokor gisa, zuri-beltzean interpretatu ezin den kasuetan bakarrik erabiliko da kolorea.

d) Azalak (kartoizkoak nahiz plastikozkoak) edo beste koadernatze-sistema batzuk (tututxoak, kiribilak) ahalik eta gutxien erabiliko dira, papera birziklatzea errazteko. Koadernatzea erabiliz gero, ahal dela paperezkoa edo kartoizkoa izango da, beste material batzuk sartu gabe.

17.– Kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea erakunde onuradunari kasuan-kasuan aplikatu beharreko merkataritzako eta sektoreko legediak eskatutako moduan.

18.– Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketetarako erabil baitaitezke.

19.– Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroan:

a) Kokalekuaren berrerabilerak gainbaliorik sortzen badu, erakunde onuradunak dirulaguntza itzuli beharko du, lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko legedian ezarritakoa betez. Era berean, erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du dirulaguntza itzultzeko diruz lagundutako jarduketaren kostua hirugarren bati arrakastaz jasanarazi bazaio.

b) Erakunde eskatzaileak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak ikertzeko laguntzak jaso ahal izateko, konpromisoa hartzen du dirulaguntzaren xedea den kokalekuko lurzoriari Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpenaren prozedura egiteko, Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearekin bat etorriz.

Lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko laguntzen kasuan, nahitaezkoa izango da saneamendu-proiektuaren onspena izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak emanda.

Nolanahi ere, erakunde eskatzaileak prozeduran zehar agintzen zaizkion neurriak ezartzeko konpromisoa hartzen du.

c) Diruz lagundutako ekintzak exekutatzear abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuak eskatutakoa beteko da. Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen du Dekretu horrek.

d) Diruz lagundutako jarduketa bada lurzoruak berreskuratzeko proiektu bat idaztea, erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen du, proiektua ingurumen-organoak onetsi ondoren, proiektua exekutatzaren hasteko, onetsitako irismenarekin, gehienez ere 2 urteko epean. Betebehar hori betetzen ez badu, erakunde onuradunak dirulaguntza itzuli beharko du.

20.– Klima-aldaketaren lerroko ekintzen kasuan, karbono-xurgapena sustatzen duten ekintzak badira, erakunde onuradunak jarduketari gutxienez 30 urtez eusteko konpromisoa hartzen du.

21.– Natura-ondarearen lerroko ekintzen kasuan, eta lursailen erosketa ere barnean sartzen bada, erakunde onuradunak dirulaguntza itzultzeko konpromisoa hartzen du haien salmenta eta/edo titulartasunaren eskualdaketa gertatzen bada. Era berean, dirulaguntza itzultzer behartuta egongo da lursailaren erabileran aldaketarik gertatzen bada, non eta ez den natura-ondarearen kontserbaziorako edo hobekuntzarako.

22.– Tokiko ekoberrikuntzaren lerroko ekintzen kasuan, erakunde onuradunak konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:

a) Proiektu bakoitzerako berariaz sortutako jarraipen teknikoko lantalde batek ikuskatuko du proiektua, eta lantalde horretan erabakitakoa betetzea erraztu eta bermatuko du.

b) Proiektuak osasunean duen efektuaren analisisa aurreikustea, Udalsarea 21eko 17. koadernoan («Osasuna eta hiri-garapen jasangarria») proposatutako metodologiari jarraituz (<http://www.udalsarea2030.eus/hasiera>)

c) Aurkeztutako proiektuek hiri-plangintzarekin, -garapenarekin edo -kudeaketarekin lotutako jarduketak eskatzen dituzten kasuetan, tokiko hirigintza-ekimenek osasunean duten efektua aztertzeko tresna aplikatu beharko da (tresna Udalsarea 21eko 17. Koadernoan («Osasuna eta hiri-garapen jasangarria»), <http://www.udalsarea2030.eus/hasiera> helbidean jasota dago), eta hasierako diseinuaren eta amaierako exekuzioaren arteko aldea islatzea, tresna erabiliz, halakorik balego.

d) Amaierako fitxa egingo da egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen jardunbide egokien ereduaren arabera (https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2022/herrijasangarriak_ecoinn/web01-tramite/eu/). Jarduketaren eremuaren araberako plataforma bereziki interesgarriak identifikatu beharko dira, haien zabalkundea egiteko.

e) Proiektuak ekintza eraldatzaile gisa <http://www.sustainablecities.eu> web-gunean ezarritako eskakizunak betetzen baditu, plataforma horretan erregistratu beharko da.

f) Proiektu guztiek txosten bat aurkeztu beharko dute, tresna fiskalen emaitzen eta eguneratze-aurreikuspenaren berri emanez. Analisi hori garatzeko, Udalsarea 2030en esparruan egindako «Ingurumen-alorreko tokiko zerga-sistamarako tresnen azterketa alderatua» argitalpena kontsulta daiteke. Analisia proiektuaren xedearekiko independentea da, eta udalek dituzten tresna fiskalen hausnarketa, analisia eta, hala badagokio, eguneratzea sustatzeko egingo da, herritarren eta jarduera ekonomikoen arduradunen artean ingurumena gehiago errespetatzen duten jokabideak sustatzeko.

21. artikulua.– Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa zehaztea.

Jarduketaren behin betiko benetako kostua dirulaguntza emateko oinarritzat hartutako aurrekontua baino gutxiago bada, dirulaguntzaren zenbatekoa dagokion proportzioan murriztuko da, eta gero dirulaguntzaren ehunekoa oinarri berriari aplikatuko zaio.

Erakunde onuradunak aurkeztutako justifikazioan halakorik aitortzen badu, ordainketa automatikoki kitatuko da, hargatik bazter utzi gabe ondoren administrazio-bidean erreklamazioa aurkezteko aukera.

22. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza esleitzeko kontuan hartutako baldintzetan aldakuntzaren bat eginez gero, baldin eta deialdiaren xedea betetzat hartzen bada eta, hala dagokionean, deialdi honetan esleitutako dirulaguntzez gain beste erakunde publiko zein pribatu baten dirulaguntzak edo laguntzak jaso badira, horren berri aurretiaz eman beharko dute, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak horrelakoak berriaz onar ditzan. Aipatutako aldaketek dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekarri ahal izango dute, betiere agindu honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen badira. Horretarako, dagokion ebazpena emango da, proposatu den proiektu-aldaketa onartzeko edo ez, eta, hala dagokionean, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa doitu da, edo, hala badagokio, behar den zenbatekoaz gaindi jasotakoa itzultzea eskatzeko.

2.– Ezingo da inola ere aldatu jarduketaren izaera, eta, aldaketa onartuko bada, erakunde onuradunak txosten bidez justifikatu beharko du aldatutako proiektuaren inpaktua parekoa edo handiagoa dela hasieran diruz lagundutako proiektuarena baino.

3.– Dirulaguntzaren erakunde onuradunak justifikazioan adierazten badu dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatu egin direla eta litekeena dela aldaketa horrek ebazpena bera ere aldaraztea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.12 artikuluko xedatzen duenaren arabera, eta aldaketok onesteko aurrez behar den baimen-izapidea ez denez egin, dirulaguntza eman duen organoaren esku geratuko da aurkeztutako justifikazioa ontzat ematea; betiere, hori eginda beste inoren eskubideak kaltetzen ez badira.

4.– Dirulaguntza eman duen organoak egiaztapen-egintzan aldaketak onartzeak ez dakar bera-ekin erakunde onuraduna legezkiokoen zehapenetatik salbuetsita geratzea.

5.– Dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatzeko eta amaitzeko epeari dagokionez, salbuespen gisa, erakunde onuradunak jarduera hori gauzatzeko epea luzatzeko eskaera egin ahal izango du, jarduketa exekutatzeko ezarritako epea agortu baino gutxienez hilabete lehenago, betiere erakunde onuradunaren borondatez kanpoko arrazoiak daudenean eta behar bezala justifikatzen dituzenean.

Epea luzatzeko, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordeak horretarako ebazpen bat onetsi beharko du.

23. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

1.– Erakunde onuradunek 2025eko urriaren 31 baino lehen exekutatu eta justifikatu beharko dute diruz lagundutako ekintza, kasu hauetan salbu:

- Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroko ekintzak 2024ko uztailaren 15a baino lehen exekutatu beharko dira; proiektuaren amaierako dokumentazioa, berriz, 2024ko irailaren 16a baino lehen aurkeztu behar dute (egun hori barne).
- Asteklima 2023 lerroko ekintzak 2023ko Euskadiko Klima eta Energiaren Astean egin beharko dira, nahitaez, 2023ko bigarren seihilekoan, eta 2023ko abenduaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dituzte frogagiriak.
- Natura Ondarearen lerroko 2.2.c) artikuluan deskribatutako 1)etik 5)era bitarteko ekintzek 2025eko abenduaren 31 baino lehen exekutatu eta justifikatu beharko dute diruz lagundutako ekintza.

2.– Horretarako, Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren, Klima-aldaketaren, Natura-ondarearen, Ekonomia zirkularraren eta Tokiko ekoberrikuntzaren lerroetako proiektuen erakunde onuradunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute bitarteko elektronikoen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>):

a) Erakunde onuradunaren Idazkaritzak egindako ziurtagiria, emandako dirulaguntzaren helburua eta xedea bete direla eta bestelako dirulaguntzarik lortu ote duten adierazten duena. Bestelako dirulaguntzarik lortu badute, ziurtagirian laguntza eman duen organoa, emandako dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa eta jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazi beharko dituzte.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen dirulaguntza jasotzeko den jarduketa-lerroari dagozkion ekintzak egin direla azaltzeko memoria, haien ezaugarri nagusiak eta ingurumen-arloko helburuen betetze-maila azalduta. Ingurumeneko onuren kasuan, inpaktuen murrizketa eta egiazko ingurumen-presioak zenbatatea –adierazleak–, a priori ezarritako helburuekin alderatuta, Agindu honen 19. artikuluan zehaztutako baldintza-agirian adierazitakoaren arabera. Diruz lagundutako ekintzaren izaeraren arabera, jarduketaren aurretik eta ondoren egindako argazkiak jasoko dira memorian, ahal den guztietan. Proposamenaren aurreikusitako ekintzen exekuzio-maila balioetsi ahal izateko adina informazio eman beharko dute, aurreikuspenen eta azkenean egindako jarduketaren irismenaren arteko alderaketa barne.

Tokiko ekoberrikuntzaren lerroko proiektuen kasuan, amaierako justifikazio-memoria teknikoan, gainera, jarduketa kokatzen den arauzko eta plangintzako tresnen identifikazioa eta gakoak eta ikasitako irakaspenak jasotzen dituen proiektuaren amaierako garapen-metodologia jaso beharko dira, proiektua beste udalerrri eta/edo eskualde batzuetara estrapolatu ahal izateko.

c) Diruz lagundutako gastua benetan egin dela egiaztatzen duten fakturak edo ordainagiriak. Fakturretan, edo, hala dagokienean, ordainketa-egiaztagirietan, fakturatutako zenbatekoak zehaztuta agertuko dira, eta kontzeptuak banakatuta eta unitateko prezioekin. Hala, aurkeztutako dokumentazio teknikoa alderatu ahal izango da.

d) Diru-sarreraren eta gastuen zerrenda. Gastuen zerrendan, fakturatutako kontzeptuak nahikoa zehaztu beharko dira, diruz lagundutako gastuei dagozkien zenbatekoak eta besteak bereizi ahal izateko.

e) Diruz lagundutako ekimenaren berri emateko egindako komunikazio eta publizitate-ekintzei buruzko memoria deskribatzailea.

f) Proiektuan sortutako materialen kopia, azterketak, txostenak eta zabalkunde eta komunikaziorako materialak barne.

g) Georreferentziatutako informazioari dagokionez, kartografia shape formatuan eta ETRS89 proiektzioan aurkeztu behar dute. Kartografia-informazioko metadatuaren fitxa bat bete beharko da kartografiako geruza bakoitzeko (https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/instrucciones_documentacion/eu_def/adjuntos/formulario_metadatos_eu_g.pdf)

h) Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroko proiektuetan, diruz lagundutako jarduketaren kokalekuari dagokion Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpenaren espedientea hasteko eskaeraren kopia.

i) Karbono-xurgapena sustatzen duten ekintzen bidezko Klima-aldaketaren lerroko proiektuetan, proiektuaren iraunaldian karbonoa xurgatzeko helburuak betetzea bermatzen duen kudeaketa-plana erantsi beharko dute.

j) Natura-ondarearen lerroko ekintzen kasuan, eta lursailen erosketa ere barnean sartzen bada, erakunde onuradunak Jabetzaren Erregistroko ziurtagiria erantsi beharko du.

k) Ekonomia zirkularraren lerroko proiektuen kasuan, elikagaien xahubidea prebenitzea sustatu edo/eta ezartzera bideratutako mekanismoen ingurukoak badira, udalerriko elikagaien xahubidearen benetako kalkulua eta horretarako metodologia jaso beharko dituzte, nazioartean onartutako metodologiaren arabera.

l) Hala badagokio, beharrezkoa izango da agiri bidez justifikatzea Agindu honen 2. eta 20. artikuluetatik eratorritako betebeharrak bete direla.

3.– Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroko eta Asteklima 2023 lerroko proiektuen erakunde onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte dirulaguntza justifikatzeko:

a) Toki-erakundearen Idazkaritzak egindako ziurtagiria, dirulaguntzaren helburua eta xedea bete direla eta bestelako dirulaguntzarik lortu ote duten adierazten duena. Bestelako dirulaguntzarik lortu badute, ziurtagirian laguntza eman duen organoa, emandako dirulaguntzaren gehieneko ehunekoa eta jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazi beharko dituzte.

b) Azalpen-memoria –eskuragarri dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan– Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroari dagozkion jarduketak egin direla adierazteko eta haien ezaugarri nagusiak eta ezarritako helburuen betetze-maila azaltzeko. Memoria horretan, lauki batean bilduko dira ikastetxeek udalei egindako proposamenak, udalek hartutako konpromisoak eta aurreko ekitaldietan hartutako konpromisoen betetze-mailaren jarraipena. Udalerrri bakoitzak, halaber, Jasangarritasunerako hezkuntzaren

lerroko jarduketaren azalpen-memorian bildutako koordinazio-gakoei buruzko informazioa eman beharko du.

Azalpen-memoria –eskuragarri dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa– Asteklima 2023 leerroari dagozkion jarduketak egin direla adierazteko, egindako jarduerak deskribatuz eta lortutako emaitza, erakunde laguntzaileak, parte-hartzaileen kopurua, erabilitako materiala eta argazkiak aurkeztuz.

c) Diruz lagundutako proiektuaren fakturak. Ziurtagirietan fakturatutako zenbatekoak zehaztuta agertuko dira, eta kontzeptuak banakatuta eta unitateko prezioekin. Hala, aurkeztutako dokumentazio teknikoa alderatu ahal izango da.

d) Diru-sarreraren eta gastuen zerrenda. Gastuen justifikazioan, fakturatutako kontzeptuak behar bezala zehaztuta azaldu beharko dira, diruz lagundutako gastuei dagozkien zenbatekoak eta halakoei ez dagozkienak bereizi ahal izateko.

e) Jasangarritasunerako hezkuntzaren leerroko proiektuetan, proiektuan sortutako ikas-materialen eta dibulgaziokoen kopia, formatu digitalean; horrekin batera, zerrenda batean adieraziko da horietatik zein izan daitezkeen material edo baliabide didaktiko erabilgarriak hezkuntza-komunitatearentzat.

f) Asteklima 2023 leerroaren proiektuen kasuan, diruz lagundutako jardueren zabalkundea egiteko erabilitako kartelen kopia, 2023ko Euskadiko Klima eta Energiaren Asterako berariaz sortutako formatuak eta zabalkunde-materiala erabili direla ikusteko aukera ematen duena.

24. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren, Klima-aldaketaren, Natura-ondarearen eta Ekonomia zirkularraren leerroetan, honela ordainduko da emandako dirulaguntza:

a) Ordainketaren lehen aurrerakina, dirulaguntzaren % 33, dirulaguntza ebatzi ostean, Agindu honen 18. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

b) Ordainketaren bigarren aurrerakina, dirulaguntzaren % 33,33, 2024ko urriaren 31 baino lehen.

c) Hirugarren ordainketa, % 33,33koa, 2025eko ekitaldian egingo da, 23.2 artikuluan ezarritako frogagiriak aurkeztu eta aztertu ondoren.

2.– Artikulu honetan jasotako ordainketa aurreratuei aplikatu beharreko berme-araubidea abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoa da (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena).

Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 1. artikuluen 2. idatz-zatiaren arabera, ez da inolako bermerik eratu beharko dirulaguntzaren onuraduna foru-aldundi bat edo toki-korporazio bat eta haien mendeko erakunde eta organismoak badira.

3.– Jasangarritasunerako hezkuntzaren leerroan, honela ordainduko da dirulaguntza: dirulaguntzaren % 50, laguntza ebatzitakoan; gainerako zatia, berriz, Agindu honen 23.3 artikuluan ezarritako frogagiriak 2024ko irailaren 16aren aurretik aurkeztu direnean eta haien analisia egin eta gero.

4.– Asteklima 2023 lerroan, dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da, justifikazio-agiriak aurkeztu ondoren, eta justifikazioak agindu honen 23.3 artikuluan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ondoren.

5.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean jasota egon beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesduneko datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako Hirugarrenentzako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/-/hirugarrenaren-datu-en-aldaketa/>

6.– Ez da inolako ordainketarik egingo onuraduna itzulketa-ebazpen baten ondorioz zordun den bitartean.

Erakunde eskatzaileek edo onuradunek dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean dituztela ulertuko da, baldin eta ez badute zorrik Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein erakunderekin, betearazpen-aldiko dirulaguntzen itzulketengatik.

Halaber, erakunde eskatzaileek edo onuradunek dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharren ordainketak egunean dituztela ulertuko da, baldin eta zorrak zatituta edo geroratuta eta bermatuta badaude edo etetea erabaki bada dagokion itzulketa-ebazpenaren aurkaratzea dela-eta.

25. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Baldin eta erakunde onuradunak ez badu Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingu-rumen Sailaren dirulaguntza eskatutako eta emandako xede espezifikorako erabiltzen, ez badu dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketa egiten, ez badu justifikatzen dirulaguntza jaso zuen xederako baliatu duela, edo, oro har, ez badu betetzen erakunde eskudunak ezarritako baldintzaren bat, erakunde horrek dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu duela adieraziko da, betiere alde zuzenetik interesdunari entzun ondoren; gainera, hala badagokio, dagokion zenbatekoa itzuli beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, gehi legezko berandutze-interesak, proportzionaltasun-printzipioari jarraikiz betiere, hala ezarrita baitago azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, zeinaren bidez onesten baita Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen berme eta itzulketei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan.

2.– Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroan, ez-betetzetzat joko da eskatzaileari egotz dakiokeen kausaren batengatik lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozedura amaitu ezin izatea, dirulaguntza eman denetik 5 urte igaro badira.

Lurzoru kutsatuen eta lurzoruaren babesaren lerroan lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura eta berreskuratze-jarduketak amaitzeko ezarritako epeak betetzen ez badira, emandako dirulaguntzen zenbatekoak itzuli beharko dira.

3.– Era berean, onuradunak itzuli beharko du dirulaguntza honen xede den jarduketaren kostuaren gaineratik jasotako diru-kopurua, beste laguntza edo dirulaguntza batzuekiko bateragarritasun-muga gainditzen bada, Agindu honen 8. artikuluan adierazitakoarekin bat; horrez gain, zehapenak eta kalte-ordainak ordainarazi ahal izango zaizkio sortutako kalteengatik, eta, hala badagokio, zigor-erantzukizuna eskatu ahal izango zaio.

4.– Ezarritako baldintzak partez betetzen badira, eta onuradunak argi eta garbi konpromisoak betetzeko jardun duela egiaztatzen bada, dirulaguntzaren zati bat ordainduko da, edo, hala

badagokio, zati bat itzuliko da, eta egindako jarduera osoak guztizkoarekiko duen proportzioa kalkulatu da. Kasu horretan, onuradunak kobratzeko eskubidea duen zenbatekoa benetan eta behar bezala justifikatuta eman den dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, erakunde emaileak justifikazioa egiaztatu eta onartu ondoren.

5.—Aipatutako zenbatekoek diru-sarrera publikoen izaera izango dute, dagozkien ondoreetarako.

26. artikulua.— Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

3. artikuluan adierazitako diru-kopuruak handitu ahal izango dira, eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren programak gauzatzetik gastatu gabeko aurrekontu-baliabideen arabera, eta programa horiei buruzko ebazpena eman aurretik. Horren berri Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen ebazpen bidez emango da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan aipatutako dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende egongo dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluaren III. kapitulua; eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko araudia (887/2006 Errege Dekretuaren bidez, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen da).

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 27a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.